

hiruka

207. zenbakia
2024ko maiatza

TOKIKO KOMERTZIOEN DESAGERPENA

Kaleak husten ari dira

HERNANDEZ
HERNANDEZ
HERNANDEZ
HERNANDEZ
HERNANDEZ

MAIATZA > EKAINA

MUSIKA



TXEKOSLOBAKO

Mugitu gerria Euskal Herria

MAIATZAK 17 OSTIRALA
21:00/6 €

MUSIKA



EARTH SONGS PROJECT

Pop Revolution

MAIATZAK 18 LARUNBATA
20:00/8 €

MUSIKA




AKALEIA

Ondoloin

MAIATZAK 31 OSTIRALA
21:00/6 €

DANTZA



MAITASUNAK

Adriana Bilbao

EKAINAK 22 LARUNBATA
20:00/10 €

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Tokiko komertzioen egoera
- 10 Herriak
- 20 Etxebizitza turistikoak Uribe Kostan
- 22 Hezkuntza gehigarria
- 30 Berbetan: Unai Arzubiaga, 2024ko Ibilaldiaz
- 35 Lehen/orain eta Urribitakora
- 37 Lizar Begoña, *Mundu Zitalaren Kontra* eleberriaz
- 38 Iritziak eta horoskopoa
- 39 Usategi
- 40 Antzarrak Rugby Taldea
- 41 Gadea Moja skatera
- 42 Faceguk: Zer da zuretzako Kanpomartxo?
- 43 Mundukatuak: Senegal
- 44 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 46 Aitormenak: Yogurinha Boroba
- 47 Zozketak



«Alfagorrak haurtzarora bueltatzen gaitu»



«Ikastola herrira are gehiago zabaldu nahi izan dugu»



«Istorioan barrena badaude kritika zantzuak»



«Taldez gain, emakumek bat ere sortu dugu»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefonia: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta eta Udane Ladislao

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto Estudio

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Gorka Mostajo, Arantza Sarasola, Xabier Benito, Jorge Gonzalez, Joanes Atxa Olaiz eta Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Getxo
bizi ezazu



Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua



Sopelako Udala



Plentziako Udala



Urdulizko Udala



Gorlizko Udala



Barrikako Udala



Lemoizko Udala

 **Bizkaia**

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Maskara behera, Imanol gora

GORKA MOSTAJO Gizarte-langilea



Otsailean HIRUKAn idatzi nuen: «Inhauterien ostean zenbait politikari populistek ez dute mozorroa erantziko!». Eta neurri handi batean, mozorroak kanpaina baldintzatu duelakoan nago. Denok «sufritu» ditugu mozorroek eragiten dituzten ezinegonak: koloretako ileordeek azkura eragiten dute eta maskarek... maskarek sekulako beroa ematen dute. Aimar Bretosen galdera bakarra nahikoa izan zen, *Scooby Doo* marrazki bizidunen kapituluetak azken eszenan bezala, Otxandianori maskara kendu eta bere begiradak ezkutatzen zuena azalertzeko: erretorika asko, proposamen gutxi eta betiko ezker abertzalea. Gainontzekorako? Pello.eus. Egia da formulak, neurri handi batean, funtzionatu diola EH Bilduri, baina ez du nahikoa izan.

Kanpainen behetik gora joandako Pradalesek irabazi ditu hauteskundeak, bai Uribe Kostan eta baita EAEn ere. Jendeak pentsatuko zuen agian ez garela diotena bezain gaizki bizi eta EAJ hobetsi du. Horrenbeste pregonaturiko ziklo politiko berriak itxaron beharko du. Agindu demokratikoak argi eta garbi adierazi dio EAJri PSErekin honaino ekarri gaituen ereduari hobekuntzak txertatzeko aukera ematen diola... oraingoz. Lortuz gero, ez dut uste lau urte barru emaitza horren estua izango denik!

Aldaketa da mandatoa

ARANTZA SARASOLA EH Bilduko batzarkidea



Argazki estatiko batetik begiratuta hauteskundeok EAJk irabazi dituela esan liteke, baina estatikotasunak ez du beti errealitatea islatzen. Benetako balorazioa egiteko emaitzen eboluzioari erreparatu behar diogulakoan nago, eta horretan, dudarik gabe, hauteskunde hauen irabazlea EH Bildu izan da.

Nolanahi ere, hauteskundeak zeinek irabazi dituen baino garrantzitsuagoa deritzot hauek erakutsi diguten herri-nahiari begiratzea: burujabetzan eta politika aurrerakoietan aurrera egin nahi duen herria, alegia.

Garrantzitsuena hori izanik, horretan dut nik kezka nagusia. Izan ere, hauteskundeetan herritarrek adierazitako gogoaren gainean inolako hausnarketarik egiteke EAJk eta PSEk ez dute minuturik ere galdu aurreko gobernuaren edizio berria iragartzeko. Kezka dut horrenbestez, ez ote duten berdina egiten jarraituko, hau da, gobernu bat non EAJk politika aurrerakoiak oztopatzen eta PSEk burujabetza oztopatzen jarraituko duten. Egia da EH Bildu hain gertutik eta hain gainean izateak ez diela hori errez jarriko, baina bestelako gogoetarik gabe gobernu osaketa definitzeko hainbesteko prisa erakutsi izanak ez du, oraingoz behintzat, haien asmoei buruz zantzu oso onik iragartzen.

Puntua eta kontrapuntua **Zer gertatzen da komertzio txikiakaz?**

Negozio txarra



Gure merkataritzak galdu du giharra orain dena da Lidl, VAS, Inditextarra Online berriz Amazon dabil barra-barra: «zerbitzu eroso, merkea, azkarra...» Gure herrientzako negozio txarra.

ARRATE ILLARO ETXEBARRIA
Getxo

Merkea zein azkarra eta eroso, baina ona ote den, hori da gakoa. Ez badugu nahi herri denda gabekoa, ezta dakarren kalte ekologikoa, jarraitu behar dugu zaintzen auzokoa.

MIKEL ARRATE ZELAIA
Berango



Baltazar Leiro Bechir eta Noel Rubianes Alfajores Brutaes proiektua



«Txikitako oroitzenetara bueltatzea ahalbidetzen digu alfajor batek»

Algortako Bidebarri kalean, txokolate eta gaileta usain gozoa dario Alfajores Brutaes proiektuko kideek duten lantegiari. Hilero 5.000 alfajor egiten dituzte han, eskuz.

TESTUA: IKER RINCON MORENO • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Alfajorra zer den ondo dakite Noelek eta Baltazarrak; argentinarrek biak, duela 22 urte etorri ziren gurera, eta, aitortzen dutenez, Euskal Herrian gozoki asko eta «kalitate handikoak» dauden arren, alfajorra jaki soil bat baino gehiago dela azpimarratzen dute biek, «etxera eta haurtzaroko oroitzenetara bueltatzeko atari bat da. Han, Argentinan, alfajorrekin batera koskortzen dira umeak». Hala, herrimin eta sentimendu horiei helduta, «eta hemen benetako alfajorrak ez zeudela ikusita», haien indarrak batu eta Alfajores Brutaes proiektua jarri zuten martxan, 2019an. Baltazar Galdakaoko Andra Mari jatetxe ospetsuko chefa da, eta, Noelegaz batera, sukaldaritzarekiko grina eta jaioterriaren nostalgia hori uztartu

ditu. Hala, esperimentazioaren ondoren, gozoki argentinarra euskal ahosabai finera egokitzea lortu dute, zaporeak eta egiturak orekatuz bertoko «bezero zorrotzak» asetzeko. «Dena batu genuen, esperientziak, oroitzenak... Baina lortu dugulakoan gaude; milaka proba egin ditugu, hamaika gaileta-aldaera sortu ditugu, eta lortutako produktua primerakoa delakoan gaude».

Nabarmetzen dutenez, haien produktua ez da argentinarrei begirakoa, baizik eta bertokoei zuzenduta dagoena. Algortan egiten dituzte, eskuz, eta hamaika aukera eskaintzen dituzte, baita beganoentzako ere. Inguruko taberna, jatetxe eta dendetan saltzen dituzte, Uribe Kostan, baina baita Euskal Herriko beste hainbat lekutan ere. Harro, «hemendik munduarentzat» direla aldarrikatzen dute, baina haien merkaturia Euskal Herrian kontzentratzen den arren, euren produktuak ez du mugarik, zaporea kulturen arteko zubia baita. Are, iaz, euren lanak mugak gainditu zituen, Argentinako Munduko Txapelketan lehiatu zutenean. «Hemendik hara bidali genuen gozokia, milaka kilometro egin zituen, eta, irabazi ez genuen arren, ondo lotu ginen». ◀



**Zergatik ari dira
desagertzen tokiko
komertzioak?**

ARES 94 46

Denda txikiak gainbeheran daude, eta, gutxika-gutxika, familiako negozioak, establezimendu independenteak eta auzoko dendak desagertzen ari dira. Arrazoi asko daude horren atzean: Interneteko erosketak, inflazioa, erosketa-ohituren aldaketak, errelebo falta... Eskualdeko dendariengana jo dugu arazo honen erradiografia bat egiteko.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** • ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶



N

ork ez ditu bere oroitzapenean gordetzen betikoak ziruditen, baina daborduko itxita dauden denda eta negozio txiki horiek? Konturatu orduko, belaunaldiz belaunaldi auzokoen beharrak ase dituzten zenbat negozio desagertu dira betiko? Horiek desagertzen direnean, atzetik hutsik geratzen diren kaleak besterik ez dira gelditzen, pertsiana zahar itxi eta hautsez betetako erakusleihoakaz.

Datuek ere sentipen hori islatzen dute zalantza barik: azken hamar urteotan, merkataritza, garraio eta ostalaritzako 6.000 enpresa txiki inguru desagertu dira Bizkaian, Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) datuen arabera. Salbuespen batzuk gorabehera, Uribe Kostan udalerrri ia guztiek galdu dituzte mota horretako enpresak neurri handiagoan edo txikiagoan. Zalantza barik Getxo da negozio txiki gehien galdu dituen udalerrria: 2013an, 1.925 establezimendu txiki zituen, baina 2023an 1.555 zenbatu zituzten; Leioa 825 izatetik 749 izatera pasatu da 10 urtetan eta Erandion 796etik 673ra. Datu horiek erakusten dute negozio txikien galtze etengabea dagoela, atea itxi eta inoiz irekitzen ez dutenak. Eskualdeko salbuespen bakarra Urduliz dugu: 2013an, 83 negozio txiki zituen, eta gaur egun, 89; hala ere, pandemiaren aurretik, 2020ean, 95 izatera ailegatu zen. INEk igorritako datuen arabera, Uribe Kostako hamar udalerrietan merkataritza, garraio eta ostalaritzako 650 negozio txiki galdu dira azken hamar urteotan.

Oro har, sektore honetan 2008ko finantza-krisiak eta COVID-19aren izurriteak eragindako kalteak agerikoak dira; aitzitik, udalerrri txiki gehienetan gorakada eman zen 2016-2020 urteen artean, baina ordutik aurrera beherakada etengabea izan da, eta udalerrri guztiek galdu dituzte negozioak. Adierazgarria da baita Euskadiko Merkataritzaren


Behatokiak igorritako belaunaldiz belaunaldi pasatzen diren negozioen datua: 2023an, % 30 baino gutxiago izan ziren Bizkaian, duela 10 urte % 50 inguru izan zirenean.

ERRELEBO FALTA. Eragile asko dira negozio txikien gainbehera eragiten ari direnak, baina nagusia errelebo falta da. «Niretzat, momentu honetan daukagun arazorik larriena da transmisioarena; komertzioak ez dira belaunaldiz pasatzen, eta itxi egiten diren negozioak ez dira berriz ere zabaltzen», baietsi du Estibaliz Rodriguez Bizkaidendak-eko elkartearen arduradunak. Berak bizitza osoa darama negozio txikiakaz lanean, eta nabarmendu du hasieran egin beharreko inbertsioa eta ordutegia direla negozio berri bat ekitera doazentzako faktore etsigarrienak. «Gainera, oso erosoak bihurtu gara, dena etxetik erosi nahi dugu eta ez dugu arriskurik hartu nahi: zortzi orduko lanaldiak eta soldata finkoa gura ditugu. Gaur egun ez da ekintzaile izatea sustatzen».

Kasurako, Altzagako Santi burdindegiko Jon Zaragozak bere gurasoengandik hartu zuen negozioa duela urte batzuk, baina iragarri du bera jubilatzen denean ez duela gura bere seme-alabek negozioa hartzea: «Gogorra da familiarekin ez egotea, nik gurasoekin bizi izan dut, eta nahiago dut beste gauza batean lan egiten badute». Horren erakusgarri da Algortako Kantxa Kirol Moda denda ere, urte askotako jardueraren ondoren, negozioagaz jarraitzen duen inor gabe ateak itxiko dituen.

Oriente Enriquez Algortako Dendak merkatarien elkarteko presidentea da, eta berak ere belaunaldiarteko erreleboaren arazoa azpimarratu du: «Komertzioak ditugunok 50 urte ingurukoak gara gehienok, zer gertatuko da erretiratzen garenean?». Berarentzat Interneteko salmenta da duten arazorik handienetako bat. Deitoratu duenez, etxeko erosotasunetik erostera ohitu da jendea: «Horren aurka borrokatzea oso zaila da; horregatik, uste dut horretara batu behar garela eta sare sozialak mugitzea eta webgune bat izatea oso garrantzitsua dela, baina denbora eta ezagutza eskatzen du horrek».

Mireia Cabañes Sopolako merkatarien elkarteko ordezkaria ere bat etorri da adierazitako horregaz, eta deitoratu du herriko merkataritza-establezimenduek indarra galdu dutela azken urteotan: «Sopelan dut denda, baina Leioan bizi naiz, eta udalerrri bietan ikusten dut: gero eta komertzio gutxiago dago, itxita dauden lokalez beteta daude kaleak». Bere ustez, merkataritza-gune



Azken urteotan eskualdeko negozio txikien bilakaera, INEren arabera.

370

establezimendu txiki galdu ditu Getxok 2013 eta 2023 urteen artean.

1/3

merkatarien heren batek hurrengo hamar urteetan hartuko du erretiroa.

23

urte da Bizkaiko merkataritza establezimenduen batez besteko antzinasuna.

handiakaz lehiatzea ere oso zaila da, jendeak nahiago duelako hara autoz joan eta lasai aparkatu, herrian aparkaleku baten bila aritu beharrean. Azaldu duenez, «oinekoentzako kaleak egiten dituzte jendeak leku gehiago izan dezan, hori ondo dago, baina hainbat aparkaleku kendu dituzte hirigunean, eta kotxean datozenek mila buelta eman behar dituzte aparkatzeko. Beraz, erosoagoa egiten zaie merkataritza-guneetara joatea; hori Sopolako erdigunean ikusi dugu, adibidez».

KOMERTZIO TXIKIEN ARGIA. Tokiko komertzio txikiak hauspotzeko eta ez galtzen uzteko hamaika arrazoi daude. Adibidez, eskaintzen duten hurbiltasuna nabarmendu du Enriquezek: «Nire bezeroak etortzen direnean beraien izenetik deitzen ditut, elkar ezagutzen dugu eta nahi dutenaren arabera aholkatu ditzaket. Horrez gain, laster Ibilaldia izango da, eta hor gaude Getxoko komertzioak babesa ematen; guk ere laguntzen ditugu herriko kirol-taldeak...».

Arantza Prado Leioako merkatarien elkarteko presidentea da eta, bere ustez,



Ixten diren negozioak berriz ere irekitzea oso zaila da, inbertsio garrantzitsua behar dutelako eta arrakasta ez dagoelako bermatuta.

herriko negozio txikiek kontsumo-ohituretan ere eragiten dute, hain hedatuta dagoen moda azkar eta merkearen aurrean, «kalitatezko produktu iraunkorrak eskaintzen ditugulako».

Horrez gain, Rodriguezek azpimarratu du komertzio txikiek zergak herrian ordaintzen dituztela, enpresa multinazional handiek ez bezala, eta lanpostu egonkorak eskaintzen dituztela. «Azken finean, gure herrietako kaleei bizitza ematen diete», balioetsi du.

Bizkaidendakekoaren ustez, gazteek nahiago dute Interneten erosi dendetara joan beharrean, merkeagoa delakoan, «baina erosketa horiek askoz arrisku gehiago dituzte; negozio txikietan berdin egin daitezke itzulketak, adituen aholkuak ere jasoko dituzu eta prezioan ez da hainbesteko aldea egongo».

AUKERAK. Argazki orokorra nahiko iluna dirudien arren, Euskadiko Merkataritzaren Behatokiaren arabera, kontsumitzeko orduan, euskaldunok tokiko merkataritza-establezimendu independenteak hobesten ditugu, eta horietan egiten dugu gasturik



«Beldurra kendu behar diogu dendetan sartzeari. Negozioetara sartu behar gara dagoena ikustera, ezer ez erosi arren, agian, aurrerago beharko duzun zerbait ikusiko duzulako eta buelatatuko zarelako, baina beldur hori kendu behar dugu»

ORIENTE ENRIQUEZ
ALGORTAKO DENDAK

handiena. Hala ere, belaunaldien artean desberdintasunak daude, eta gazteenek merkataritza-gune handietara edo online erosketetara jotzen dute gehiago.

Horrez gain, Aldundiak eta udalek hainbat politika bideratzen dituzte tokiko merkataritza suspertzeko, hala nola bonu-kanpainak, negozioak berritzeko laguntzak, prestakuntza tailerrak... Berbarako, Bizkaiko Foru Aldundiak NegozioOn programa ere badauka, erretiratuko diren ugazabek beraien negozioak interesa dutenei eskualdatu ahal izateko plataforma.

Belaunaldi berriei dagokienez, 18 eta 30 urte arteko erosleak erakartzean dago negozio txikien erronka nagusia. 'Z' eta 'millennial' belaunaldietako gazteek sare sozialetatik jasotzen dutenaren arabera kontsumitzen dute, eta, besteak beste, erosten dituzten produktuek ingurumenean duten inpaktua neurtzen dute. Ildo horretan, Behategiaren arabera, «prest daude gehiago ordaintzeko produktu jasangarrietatik».

Gauzak horrela, negozio txikiak erosle mota berrietara ere egokitu beharko

Getxo San Isidro jaiak

Hasi da festa Getxon Andra Mariko jaiakaz!

Maiatzaren 9tik 15era bitartean, hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da Andra Mari auzoko festetan.

San Isidro Egunagaz batera, Getxoko Andra Mari auzoa festan murgiltzeko sasoa da. Hala, aurten, maiatzaren 9tik 15era arteko jaiak antolatu ditu bertoko jai-batzordeak. Aurretik, hilaren 4an, motorrak berotzeko parada egin zuten, kalejira eta umeen dantzaldi bategaz, Itxas Argiak antolatuta. Festak, baina, eguenean, hilaren 9an, hasiko dira ofizialki, iluntzeko 20:00etan jaurtiko duten txupinagaz batera. Hortik aurrera, askotariko hamaika jarduera egongo da gozagai inguruan, ume zein helduentzako: kontzertuak, dokumentalen emanaldiak, herri-bazkaria, eskupilota erakustaldia, mus txapelketa, kalejirak, poteoa... Horiek guztiak, gune bi nagusitan egongo dira banatuta: Malakaten eta kiroldegiko aparkalekuan; hala ere, Bentan, Maidagan kalean eta Aixerrota inguruan ere gauzak egongo dira egiteke.

MAIATZAK 15, SAN ISIDRO EGUNA. Ondoko kutxan jaien egitarau ia osoa ikus daiteke; hala ere, hilaren 15ean ere ekitaldi xume batzuk egongo dira auzoari festa dakarren egunari men egiteko: 17:00etan umeentzako magia-ikuskezuna, eta amaierako txupina. ◀

Egitaraua, ekitaldietako batzuk

Maiatzak 9, eguna

- 17:30** Umeentzako diskofesta, aparkalekuan.
- 19:00** *October 7*, Palestinari buruzko dokumentala eta Viktor Pozas EHUko ikerlariaren solasaldia, Bentan.
- 20:00** Txupinaren jaurtiketa, aparkalekuan; ondoren, kontzertuak: Moskova Muxarrak eta Lenago II.

Maiatzak 10, barikua

- 17:00** Txupinaren jaurtiketa eta pregoia, Malakaten, Geroako ikasleen eskutik.
- 17:00** Eskupilota erakustaldia, kiroldegian.
- 17:30** Parkean Olgetan ume eta helduentzako jolasak, Malakaten.
- 17:30** Grafitiak eta DJ saioa, Maidagan kaleko horman.
- 18:00** Mus txapelketa, Bentan.
- 19:00** Txokolate-edana, Malakaten.
- 19:30** Buruhandiak, Malakaten.
- 20:00** Kalejira eta poteoa, Bentatik hasita.
- 21:30** Suzko behia, Bentatik kiroldegira.
- 21:30** Kontzertuak, aparkalekuan: Ugerda, Txapel punk eta Sonic Trash.

Maiatzak 11, zapatua

- 10:30** Arto-landaketa eta jolasak, Ibarbengoan.
- 11:30** Umeentzako puzgarriak eta ludoteka, Malakaten.
- 12:30** Fanfarria, Malakatetik aparkalekura.
- 15:00** Palestinaren aldeko herri-bazkaria, aparkalekuan.
- 18:00** Skate tailerra, Ortzadar plazan.
- 18:30** Zumba Rosigaz, Malakaten.
- 19:00** Umeentzako zinema, Bentan.
- 20:00** Urtez Urte dantzaldiaren kalejira, Malakatetik frontoira. Ondoren, 21:00etan, dantzaldia, Itxas Argia dantza-taldearen 60. urteurrenean.
- 21:00** Aurah Sin: Drag Party, Malakaten.
- 21:30** Suzko behia, Bentatik.
- 23:00** Kontzertuak, aparkalekuan: Bidean erromeria.

Maiatzak 12, domeka

- 10:00** Herri azoka, kiroldegiko aparkalekuan.
- 10:30** Jostailu-liburu truke azoka, kiroldegian.
- 11:00** Orientazio proba, Aixerrotan.
- 12:30** Herri-kirolak, kiroldegian.
- 12:30** Bertso-saioa, aparkalekuan.
- 14:00** Folk kontzertua, aparkalekuan.



OS ALGORTA

Gizonezko moda

instagram.com/oso_algorta/
facebook.com/OSOalgorta

ALGORTAKO ETORBIDEA, 59
osoalgorta@gmail.com



GetxoGaso

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500


📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

XV. Getxophoto Ekainaren 6tik 30era

Jolasaren unibertsoan murgiltzeko gonbidapena

Ekainaren 6tik 30era bitartean, Getxo udalerriko eremu publikoetan 22 erakusketa egongo dira ikusgai. Oraingoan ere, gune publikoaren erabilera defendatuko dute, eta, besteak beste, aisialdirako eta kirolerako gune publikoak erabiliko dituzte. Nazioarteko hainbat egile esanguratsuren irudiak erakustez gainera, parte hartzeko programa sendo bat prestatu du ere.



Leioa Lamiako Maskarada**Ohitura jarraituz,
Lamiako kondairaz eta
magiaz beteko dute**

Maiatzaren 31n egingo dute aurtengo maskarada. H. T.

Urtero legez, maiatzeko azken barikuan egingo dute Lamiako Maskarada. 17:30ean abiatuko dute lehen partea, eta Maiatzak gidatuta, Lamiakoko metro-geltokira joango dira maskarada fanfarreagaz iragartzeko. Gero, 18:00etan, pertsonaia guztiak batzen joango dira kalejira egiten duten bitartean, eta azkenik, 22:30ean, gaueko akelarrea egingo dute suaren inguruan batuta.

Aurten, berritasun bat ere izango du Lamiako Maskaradak, Sugaar, Mari, Prudentzia, lamiak eta gainontzeko pertsonaiak batera buruhandi berri bat ere izango dutelako. «Pertsonaia berria izango dugu, baina ezin dugu esan nor den, hori jendeak egunean deskubrituko du», aurreratu du Arene Albizu maskaradaren antolatzaileetako batek.

Albizuk adierazi du urtez urte gero eta jende gehiago joaten dela ikuskizunaz gozatzerara, baina aurten ez dutela aurrekoetan bezalako deialdirik egingo, «ahoz ahokoarekin nahiko izaten delako». Hala ere, auzoko bizilagunei gogoratu diete etxeetako balkoiak atontzea

Leioa Umore Azoka**Umore Azokak 18
euskal konpainia
ekarriko ditu arten**

Maiatzaren 16tik 19ra, Leioako kaleak kulturaz, artez eta magiaz beteko dira beste behin, 24. Umore Azokaren eskaintzagaz: dantza, zirkua, antzerkia...



Aurten 24 urte beteko ditu jaialdiak. HODEI TORRES

Leioako Udalak 18 euskal konpainia sartu ditu aurtengo Umore Azokako programazioan, bertako industria eta talentu kulturala babesteko asmoz. Artistek Leioako erdigunetik banatutako guneak erabili ahal izango dituzte haien lanak partekatze hurbilduko diren lagun guztiakaz. Aurten, parte hartuko duten euskal konpainiak hurrengoak dira: DAB

Dantza Konpainia, Cía. Barsanti, Ganso&Cía, Goitibera, Hika Teatro, Hortzuga Teatro, Kresala Dantza Taldea, La Glo Zirkua-Dantza, La Pez;, Cía. Maite Guevara, Markeliñe, niMÚ, NODE, Organik Dantza, Teatro Gorakada, Cía. Trotamundos, TwoMuch Circus eta Mutis Espazioa, talde leioaztarra. 24 urte betetzen duen jaialdia ezinbestekoa da sektoreko profesionalen arteko harremanetarako eta

AINGARA
BORDATU PERTSONALIZATUAUAK ZURE GUSTORA...

Denda berria!
Ibaiondo, 13 48930 Erromo · GETXO

944 038 953 • www.bordadosaingara.com

**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Erendio Gorputzi jaiak

Hilaren amaieran hasiko da jaien segida Erandion

Erandiogoikoko jai nagusiak dira Gorputzi jaiak, eta aurten maiatzaren azken egunetan eta ekaineko lehen aste-akabuan ospatuko dituzte, berrietasun eta guzti.

Aurten, Gorputzi jaiak maiatzaren 30etik ekainaren 2ra bitartean ospatuko dituzte Erandiogoikoan. Gainera, auzoko jai ospetsuenak berrietasun bat ere izango du, motorrak berotzeko, maiatzaren 25ean, «Prejaiak» ospatuko baitituzte.

Egun horretan, 13:00etan jarri dute hitzordua, trikipoteoagaz herria girotzeko, eta 15:00etan herri-bazkaria egingo dute Goikolanda plazan. Victor harategiaren eskutik prestatuko duten menua dastatzeko izen-ematea 647 048 007 telefono-zenbakira idatziz egin beharko da, maiatzaren 21a baino lehen.

Azkenik, maiatzaren 30ean auzoko jaiak helduko diete, egunetik domekara egingo dituzten jarduerakaz: dantzak, herri-afaria, umeentzako jolasak, azoka... Horregaz batera, kontzertuak ere izango dira, noski: barikuan, Berba Labanakaz, Chuleria Joder! taldeak eta Zirkinik bez erromeria arituko dira: aldiz, zapatuan, Mrs Clans taldea eta Lehian erromeria taldeen txanda izango da.

Egitaraua



Maiatzak 25, zapatua

- 13:00 Trikipoteoa herriko gazteakaz.
- 15:00 Kuadrillen bazkaria, Goikolanda plazan.

Maiatzak 30, eguena

- 12:30 Aureskua eta luntxa herriko nagusientzat.
- 19:30 Txupinazoa.
- 21:00 Herri afaria.
- 23:00 Iratzar erromeria.

Maiatzak 31, barikua

- 18:00 Olgetan Solas, familia arteko jolasak.
- 18:30 Trikipoteoa.
- 20:00 Goi-Alde dantza taldearen erakustaldia.

- 22:00 Kontzertuak: Berba Labanakaz eta Chuleria Joder! Zirkinik bez erromeria.

Ekainak 1, zapatua

- 10:30 Artisau azoka.
- 12:00 Txistulariak.
- 11:00 Herri azoka.
- 15:00 Herri bazkaria.
- 21:00 Txixi-burruntzi.
- Mrs Clans kontzertua. Lehian erromeria.

Ekainak 2, domeka

- 12:30 Goi-Alde txikiak.
- 15:00 Tortilla lehiaketa.
- 17:30 Kontzertua.
- 20:00 Jaien amaiera.

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Algortako Etorbidea, 76,
48991, Algorta
944 60 90 31



English SUMMER Play-School
July 9.00 - 13.30h.
2 to 12 YEAR-OLDS
outdoor activities
fun & games

HAMILTON IDIOMAS
SAN NIKOLAS

- Janteki until 15.00h. (optional)
- 2nd. brother/sister - 50% discount.
- 3rd. brother/sister - FREE

INFORMATION & INSCRIPTIONS

946 763 012
663 628 828
info@hamiltonidiomas.com

hamiltonidiomas.com | sipiri kalea, 11 | Sopela

Sopela Irisgarritasunari buruzko jardunaldia

Ikusezinak diren aniztasun funtzionalen aldeko ekimena

«Sopela guztientzako udalerria al da?» galderari erantzuteko asmoz, irisgarritasuna hizpide zuen jardunaldia egin zuten, apirilaren 19an, Kurtzion.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Begoña Benito del Valle eta Soko Sanchez Martinez heziketa bereziko langileek aspaldi sumatu zuten herria inklusibotasunean kontzientziatzeko beharra. Hala, Sopelako Udalak proposatuta eta antolatuta, apirilaren 19an, berbaldi ezberdinak eman zituzten aniztasun funtzionala duten beste hainbat pertsonakaz batera. Modu horretan, guztientzako den udalerrri bat eraikitzeko gakoak azaldu zituzten.

Jardunaldia arrastiko 18:00etan hasi zen, eta, hasieran, Sanchez eta Benito del Valle hizlariak kontzeptu batzuk argitu zituzten argazki batzuez lagunduta, hala nola desgaitasuna, aniztasun funtzionala, integrazioa eta inklusioa bezalako terminoak. Sarrera gisako azalpen horren ostean, aniztasun funtzional ezberdinak dituzten lagunek euren bizipenak kontatu zituzten, hala, herritarrek euren istorioa gertutik ezagutu ahal izateko. Hitzaldien ostean, bizilagunek galderak egin ahal izan zituzten euren zalantza bat ere argitu gabe geratu ez zedin. Horrez gain, mokadutxo bat hartzeko tartea ere egon zen, autismoa duten pertsonen prestatutako *lunch* batean.

Sanchezek eta Benito del Vallek azaldu dutenez, Sopelako Udalak daborduko irisgarritasun-plan bat du abian: «Instituetan piktogramak jartzen hasi dira eta espaloietan egokitzapen gehiago egin dituzte. Hala, jardunaldi honen helburua izan da jendeak ikastea eta kontzientzia hartzea».

Irisgarritasunari dagokionez, Sopelan dagoen arazorik larriena jendearen ezjakintasuna dela diote: «Jendeak uste du aniztasun funtzionala soilik dela gurpildun



Begoña Benito del Valle eta Soko Sanchez Martinez hizlariak. HODEI TORRES

«Jendeak uste du aniztasun funtzionala soilik dela gurpildun aulkian aritzen diren lagunak, baina ikusezinak diren desgaitasun asko daude ere. Adibidez, gortasuna duten bizilagunak»

aulkian aritzen diren lagunak, baina ikusezinak diren desgaitasun asko daude ere. Adibidez, gortasuna duten bizilagunak». Hala, gogoratu dute edadeko pertsonak egunero gaitasunak galtzen doazela eta haiek ere herritarren laguntza behar dutela. Argi dute gizartea kontzientziatzeko bidea dela aniztasun funtzionala duten lagunak «entzutea eta euren istorioa ezagutzea».

Ildo horretan, apirilaren 19ko jardunaldiaz gain, Sopelako Udaleko profesionalek ikastaro bat egingo dute irisgarritasun eta aniztasun funtzionalaren inguruan. Deitoratu dutenez, askotan gortasuna duten pertsonak udaletxera joaten dira eta bertan ez dute jakiten nola komunikatu edota jokatu pertsona horiekaz. Hori ekiditeko formakuntza ezinbestekoa dela azpimarratu dute. Gainera, nabarmendu dute edozein instituziotan zeinu-hizkuntzan aditua den lagun bat egon behar dela. Egun, gutxieneko hori ez da betetzen. Besteak beste, supermerkatuen kasuan, zarata eta argi gutxiago egon beharko litzatekeela salatu dute, autismoa duten pertsonen ongizateari mesede egiteko. Hala, Benito del Vallek nabarmendu du inguruneak moldatu behar



Umore Azoka

XXIV FERIA de ARTISTAS CALLEJEROS de LEIOA
MAIATZAK 16, 17, 18, 19 MAYO 2024



Lemoiz Komunikazioa**Aplikazio berria sortu dute herrian apurtuta dauden instalazioentzat**

Herriarren eta Lemoizko Udalaren arteko komunikazioa hobetzeko asmoz, Udalak Kalezaindu izeneko tresna berri bat sortu du. Horren bidez, bizilagunek Udalari abisatu ahal diote kaltetuta dauden hiri-altzarietan eta bestelako elementu publikoetan izan daitezkeen gorabeheri buruz. Hala, behar bezala funtzionatzen ez duten edo hobetu daitezkeenei buruzko informazio zuzena jasoko du herritarrengandik. Zerbitzu berri hori Lemoiz Zabaltzen aplikazioaren barruan dago, eta bere helburua da lemoiztarren eta Udalaren arteko komunikazioa arinagoa eta



Lemoiz Zabaltzen aplikazioaren barruan dago.

Sopela Hezkuntza komunitatearen eskaria**Eskolak handitzeko proiektua babestu du Eusko Jaurlaritzak**

Sopelako Haur Hezkuntza Loroñon egongo da, Lehen Hezkuntza Zipiriñen eta DBH eta Batxilergoa Iberren, eraikina handitu ondoren.



IGEek egindako lana nabarmendu du Carrassonek. IGE

Apirilaren 24an, Sopelako hezkuntza-komunitateak adostutako proiektua babestu zuten azkenean Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Hala, Sopelako Haur Hezkuntza Loroñon egongo da, Lehen Hezkuntza Zipiriñen eta DBH eta Batxilergoa Iberren, eraikina handitu ondoren. Sopelako alkate Guruzne Carrassonek bereziki

azpimarratu du IGEek egindako lanaren garrantzia: «Hezkuntza komunitatea zoriondu behar dugu urte hauetan guztietan egin duen lanagatik. Neurri handi batean, bere mobilizazioei esker lortu dugu guzti hau». Halaber, nabarmendu du «erabateko konfiantza» zutela hezkuntza-komunitateak aukeratutako proiektua Sopelarentzat eta herritarrentzat

Urbe Kosta Garraio publikoa**Maiztasuna areagotzea bideragarria ez dela dio Metro Bilbaok**

Apirilaren, Sopela, Urduliz eta Plentziako alkateak Metro Bilbaoko ordezkariakaz batu ziren zerbitzuaren maiztasuna areagotzeko eskatzeko. Sopelako alkateak azaldu duenez, erantzuna ezezkoa izan zen, «proposamena bideraezina delako Metro Bilbaoren arabera, beharrezko inbertsioak egiten ez badira». Jakinarazi



20 minutuko maiztasuna dute.

duenez, oraingoz, Metro Bilbaok ez du horiek egiteko konpromisorik hartu. Egun, Sopela, Urduliz eta Plentziako herritarrek 20 minutuko maiztasuna dute metroko zerbitzuan. Erabakiaren ezezkoaren aurrean, udalerrietako udaletako ordezkariak konpromisoa hartu dute beren txosten teknikoari buruzko azalpenak emateko, era horretan, maiztasunak handitzeari buruzko

Berango Azpiegiturak

Berangoetako kultur etxearen fatxada, birmoldatuta

Egindako lanakaz, arazoak konpontzeaz gainera, eraikinaren portaera termikoa eta azpiegituraren eraginkortasun energetikoa hobetuko ditu.



Berangoetako kultur etxea, kanpotik. HODEI TORRES

Berangoetako Kultur Etxeko fatxada birmoldatzeko lanak daborduko eginda daudela iragarri du Udalak. Jarduketa horren kostua, guztira, 150.461,49 eurokoa izan da (BEZa barne), eta, horretarako, 55.960,2 euroko diru-laguntza lortu du Aldunditik 2023 Azpiegiturak izeneko programaren kontura. Lanei dagokienez, zereginen artean egon dira eraikinaren kanpoko fatxadak eta estalki lauak birmoldatzea. Fatxaden kanpoaldetik isolamendu termikoko sistema gehitu dute,

poliestireno hedatuzko xaflen bidezko isolamendu termikoa duena. Sistema horrek, ordura arte egondako akatsak zuzentzeaz gain, eraikinaren portaera termikoa eta azpiegituraren eraginkortasun energetikoa hobetuko ditu.

GENERO-MAPA. Era berean, emakumeentzat horren seguruak ez diren eremuak detektatzen jarraitzen du Udalak; hala, genero-mapa bat osatze aldera, eta horri buruzko tailerretako eta galdetegiko emaitzak aztertu ondoren, ibilbide

Berango Otxantegi Herri Lurra

Hirugarren saiakeran hustu dituzte okupatutako lurrak

Maiatzaren 7an hustu zituen Ertzaintzak Berangon okupatutako Otxandategi dorretxea eta haren lursaila. 2022an abiatutako proiektua zen Otxantegi Herri Lurra, «milioiak balio dituen proiektu urbanistiko bat» geldiarazteko asmoz. Agintariek hirugarrenez lortu dute inguru hori desalojatzeko, lehenengo saiakera bietan topatutako erresistentziari esker hirugarren honetara arte atzeratu ondoren. Operaziorako, Ertzaintzak 15 furgoneta mobilizatu zituen, eta pertsona bat atxilotu, dozenaka identifikatu eta bi zauritu

Barrika Mikroipuinen lehiaketa

Joseba Santxo eta Eva Susana Biggi, irabazle euskaraz eta gaztelerez

Maiatzaren 4an, zapatuan, banatu zituzten Barrikan Mikroipuinen Lehiaketako sariak. Euskarazko modalitatea Joseba Santxok irabazi du, *Amets* mikroipuinari esker; gaztelaniazkoa, aldiz, Eva Susana Biggik, *El velo* lanari esker. Gaia librea zen, eta parte-hartzaileek «aroma» berba edo horretatik eratorritako edozein termino erabili behar izan dute. Gertuko Auzokidee Elkarteagaz elkarlanean antolatutako lehiaketa 18 urtetik gorako eskualdeko edozein bizilaguni edota Barrikako Udal Erregistroan agertzen diren kultura eta kirol elkarteetako kideei

Iñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

JUAN MARI

Harategia



Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Gorliz eta Plentzia Denon Bizitzak Erdigunean

Helburua, zaintza-sistema

**Azaroaren 30eko grebak
zaintza-sistema eraldatzeko
beharra jarri zuen erdigunean.
Dinamika horregaz jarraitzeko
helburuagaz sortu dira Gorliz-
Plentziako bezalako taldeak.**

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ANDER ZARRAGA** ▶

Gorliz eta Plentzian greba antolatu zuen komitetik atera zen Denon Bizitzak Erdigunean dinamika udalerriotan jarraituko duen taldea; orain, ekimena herri-mailan garatzea dagokiela azaldu dute Bego Carrandi eta Nerea Cuadrado kideek. Horretarako, udalerrri bietako herritarrak batu dira zaintzen auzia erdigunean jarri eta gizartean horren inguruko hausnarketa-prozesua abiatzeko.

Azaroaren 30eko grebaren aldarrikapenei heldu diezue, zer dator orain? NEREA CUADRADO: Mugimendu Feministak denbora darama zaintzaren ildo nola jorratu eta borrokatu aztertzen. Greba tresna bat izan zen zaintzak erdigunean jarri eta gure aldarrikapenak eta eskariak jasotzen dituen herri-akordioa aurkezteko. Orain, datorrena da benetako lana eta hausnarketa, pentsatu behar dugulako nora goazen eta zer egingo dugun aldaketa sozial hori emateko.

BEGO CARRANDI: Horrez gain, grebak balio izan zuen instituzioak interpelatzeko, eta gure ustez lortu dugu zerbait: Eusko



Carrandi eta Cuadrado Plentzia eta Gorlizko Bizitzak Erdigunean dinamikako kideak dira.

Borroka desberdina
«**Beti militaratu izan dugu hainbat taldetan, baina borroka hau desberdina da, beste erritmo batzuk ditu, hausnarketa-prozesu sakonak behar ditu eta epe luzerako moldeak eskatzen ditu**»

Legebiltzarrerako hauteskundeetan politikariek kontuan hartu zutelako zaintzaren gaia. Orain arte, borroka feminista esaten zenean, gizonak eta emakumeak orekatzea aldarrikatzen zen, baina zaintza guztion kontu bat da, ez bakarrik emakumeona. Nik pentsatzen dut ideia harrapatu dutela, baina ikusi beharko da nola garatzen duten.

Zertan gauzatu dira grebaren aldarrikapenak? B. C.: Eusko Jaurlaritzari eskatu genion herri akordio hori landuko duen erabaki-mahai bat osatzea agente

G P: GGG GETXOPH000000TO 2024 P
P EE EKAINA 06-30 PH
2 06-30 06 OT
4 PLANTIA AAAY YY GP

●NAZIOARTEKO IRUDI JAIALDIA [WWW.GETXOPHOTO.COM]

sustraietatik iraultzea

desberdinekin, baina oraindik ez dugu erantzunik jaso.

Esango zenukete borroka feministak eman behar zuen hurrengo urratsa izan dela?

N. C.: Bai, datuak hor daude: zaintzen % 80 inguru emakumeon bizkarren gainean daude oraindik. Gizonak sartzen ari dira, baina oreka lortzeko asko falta da; beraz, feminismoaren aldetik ikusita, beste urrats bat izan da. Guztiok behar ditugu zaintzak eta guztion ardura izan beharko litzateke, ez emakumeona soilik. Meloi handi bat ireki da hor.

N. C.: Aldaketa estrukturala eta sistemikoa egin behar da, eta horretarako epe luzerako borroka daukagu aurretik, hainbat faktoretan eragin beharko dugulako. Zaintza-sistema aldatzeak aldaketa sozial bat eskatzen du. Ez da erraza izango eta poliki-poliki egin beharko da, baina horretan lanean hasi behar genuen.

Greba-egunean emakume migratuen kolektiboa ez zen batu, zergatik uste duzue gertatu zela hori?

B. C.: Gu kontziente gara gure feminismoaren barruan barne-iraultza bat egin behar dugula, gurea 'feminismo zuria' delako. Beraz, hor ere erronka bat dugu, eta eskertzekoa da beste kolektibo horiek ere gu interpelatzea, feministak izan arren ez garelako libratzen, baina kritika konstruktibo moduan hartu dugu eta hor zubiak eraikitzeko beharra ere ikusi dugu.

Gorlizera eta Plentziara etorrira, nola

Helburuak

«Gai honek orain egin du eztanda, eta ez da kasualitatez izan. Krisi ekosoziala, bizitzaren garestitzea, zerbitzu publikoen pribatizazioa... Ikusi dugu zaintza sistema kolapsora doala, instituzioek pribatizaziorantz jotzen dutela, horrek dakarren prekarizazioarekin. Beraz, bagoaz sindikatuekin eta eragile sozialekin borrokatzea eta interpelatzera hori alda dadin. Helburua da zaintza sistema publiko duina eta komunitarioa lortzea, eta horretarako zabaldu beharreko hainbat meloi ditugu, baina lehenik eta behin zein baldintzetan gauden ikusi behar dugu etxean egiten diren zaintzetatik abiatuta. Goazen guztion artean pentsatzera nola kolektibizatu ditzakegun zaintza horiek».

dinamizatu zarete? N. C.: Apirilean, kafetertulia bat egin genuen eta erantzunarekin oso pozik geratu ginen. Sorpresa polita izan zen, herri bietako jende oso ezberdina joan zelako: belaunaldiartekoa, gizonak eta emakumeak... Dependentsia, lan feminizatuak, lan-banaketa desiguala eta autozaintza jorratzeko mahai-inguruak egin genituen diagnosi bat osatzeko; izan ere, gure helburua da Gorlizen eta Plentzian hausnarketa kolektibo bat abiaraztea, eta hortik ateratzen ditugun ideietatik ikustea zer egin dezakegun. Horrez gain, udaletara ere joko dugu ikusteko beraiekin ere zer egin dezakegun.

B. C.: Hausnarketa prozesuarekin jarraituko dugu, jendea gogoz etorri zela ikusi genuelako. Badago ikusmina zaintzaren gaiaren inguruan nondik joango garen ikusteko.

Plentzian edo Gorlizen ba al dago zaintzaren inguruan lanean dauden emakumeen inguruko diagnosirik?

B. C.: Plentzian badago, baina Gorlizko Udalari eskatu beharko genioke diagnosi bat egitea ikusteko ea maila publikoan nolako baldintzetan dauden zaintzaren bueltan dauden langileak, kopurua eta baldintzak ezagutu ahal izateko, gure herrietan dugun errealitatea zein den ikusi nahi dugulako.

Uste duzue erakunde publikoetatik hasi beharko litzatekeela iraultza?

N. C.: Agian errazagoa da instituzioak interpelatuz



Uribe Kosta Etxebizitza turistikoak

Etxebizitza turistikoen goraldiak eztabaida piztu du

Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak ematen ditu ostatu turistikoak irekitzeko lizentziak eta, 2020an gurean 287 zeuden bitartean, 387 daude gaur egun.

IKER RINCON MORENO ▶

Gero eta ohikoagoa da gure udalerrietako eta auzoetako atarietan erabilera turistikoko etxebizitzak iragartzen dituzten VT bereizgarriak topatzea. Zehazki, mota horretako ostatuak % 34,8 areagotu dira azken lau urteotan Uribe Kosta, 100 etxebizitza turistiko gehiago izena eman baitute Euskadiko Enpresen eta Turismo Jardueren Erregistroan, gehienak, Getxon (40), Plentzian (15) eta Sopelan (11). Eusko Jaurlaritzako Turismo Saila da mota horietako ostatu turistikoek lizentzia emateko ardura duena, eta horietatik dira ofizialki erregistratuta daudenak. Hala ere, auzokideen hainbat elkarte eta alderdi politiko kexu dira «askoz gehiago» direlakoan, «Interneteko plataformetan bilaketa bat egitea besterik ez dago hori ikusteko». Besteak beste, askotariko eskaintza topa daiteke.

Etxebizitza turistikoak ireki eta itxi egiten dira urtez urte, eta, erregistroari erreparatuz gero, lizentzien altak eta bajak topa daitezke egunaren arabera. Besteak beste, Getxo da lizentzien hazkunde handiena izan duena azken urteotan, 2022tik aurrera batez ere -60 lizentzia onartu ditu Jaurlaritzak udalerririk horretan urte horretatik aurrera-, baina, tokiko Udalak gogoratu duenez, 2022ko urriaren 19tik aurrera irekitako horiek ez datoz bat udal-ordenantzagaz. Hau da, data horretatik aurrera zabaldutakoak ilegalak dira; zehazki, 49.

Ostato-mota horiek Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailaren bidez tramitatzen dira, sail hori baita administrazio eskuduna. Hala ere, Getxoko Udalak jakinarazi duenez, lizentzia hori dagokion udalari jakinarazi behar zaio, hirigintza-diziplinaren arloan egiazta dezan, ondoren txosten bat bueltatzeko lizentzia hori «berretsi edo ukatzeko» tramitazioa



Lizentzia duten etxebizitza turistikoek VT bereizgarria dute atarian. HODEI TORRES

HERRIA	2020	2024	Igoera
Barrika	9	18	% 100
Berango	8	11	% 37,5
Erandio	11	16	% 45,5
Getxo	119	159	% 33,6
Gorliz	28	30	% 7,17
Leioa	15	19	% 26,7
Lemoiz	5	11	% 120
Sopela	59	70	% 18,6
Plentzia	29	44	% 51,7
Urduliz	4	9	% 125
URIBE KOSTA	287	387	%34,8

ITURRIA: Euskadiko turismo-enpresa eta -establezimenduen Erregistroa (2024ko maiatzaren 6an)

has dezan. Ildo horretan, Getxoko Udalak gogoratu du 2022ko urriaren 19tik aurrera Jaurlaritzak udalerrian emandako lizentziak ez datozela legezotasunagaz bat, «eta Portu Zaharreko denak; horren inguruan ez dago zalantzarik», ohartarazi du Alvaro Gonzalez Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza Arloen zinegotziak. Azken kasu horretan, Portu Zaharrean zazpi etxebizitza turistiko daude erregistratuta, «baina gehiago izan daitezke, lizentziarik gabekoak».

Horren aurrean, EH Bilduk neurriak eskatu ditu eta, martxoko Lurraldeko Informazio Batzordean. Horren inguruko eztabaidan, Gonzalezek azaldu zuen ilegala den edozein aktibitatearen aurrean hartzen dituen neurrien bidez jorra dezaketela arazoa, ordenantza baten bidez ezinezkoa delako, «hainbat auzitegik halakoak baztertu dituztelako». Hala, gobernu-taldearen asmoa da jakitea ea etxebizitza horiek bat datozen indarrean dagoen eta garatzen ari diren HAPOakaz, eta, hala ez bada, irekitzearen aurkako txostena egin Jaurlaritzari igortzeko, «bera baita konpetentzia». Oraingoan, baina, kontrola zaila izaten ari dela nabarmendu zuen, eskatutako eskaera kopuruagatik eta

KAISHOP!

Erosi euskaraz Getxon



Euskara + 0 km = kalitatea



BASERRI TABERNA



KANTXA KIROL MODA



EGUIZABAL PUEBLA HORTZ-KLINIKA



IBAIGANE ARRAINDEGIA



ESTIMUA edertasun-zentroa



M&S ile-apaindegia



Kaishop



Sandra Martin Andres Hezkuntza positiboaz

«Zigorra epe luzera ona ez dela erakutsi dute ikerketa askok»

NAHIA MARTINEZ GONDRA

Haur Hezkuntzako umeak dituzten gurasoei zuzendutako hezkuntza positiboko tailer ezberdinak emango ditu Sandra Martin Andres hezitzaileak, maiatzetik ekainera. Hala, sei saiotan, umeen portaera txarraren atzean zer dagoen azaltzen ahaleginguduko da Gurasoentzako Eskola tailerrean, Sopelako Kurtzio kultur etxean.

Zer da diziplina positiboan heztea? Zeintzuk dira bere oinarriak? Oinarriak dira hezitzaile gisa atseginak baina irmoak izatea: hau da, garrantzitsua da mugak jartzea, baina horiek komunikatzea errespetuz eta modu atseginan. Soilik atseginak bagara, permisibitatean eror gaitzke. Beste faktore bat da epe-luzean eraginkorra dela: egiten ditugun aldaketek eragina izango dute etorkizunean. Bukatzeko, akatsa ikasteko aukera bat da, ez da zerbait negatibo gisa ulertzen.

Zer dago umearen portaera txarraren atzean? Azaltzen ez dakien sentimendu eta emozioak daude. Batzuetan, umeak senti dezake ez dela familiaren parte edota ez diogula bezainbesteko denbora eskaintzen. Ez duenez bere lekua topatzen, arretaren, botere borrokaren edota mendekuaren bidez bilatuko du. Hezitzaile gisa identifikatu behar dugu zergatik duen jokabide hori,



«Batzuetan, umeak senti dezake ez dela familiaren parte edota ez diogula bezainbesteko denbora eskaintzen. Ez duenez bere lekua topatzen, arretaren, botere borrokaren edota mendekuaren bidez bilatuko du»

SANDRA MARTIN ANDRES
DISZIPLINA POSITIBOKO FAMILIA
HEZITZAILEA

zein den arrazoia, eta horren arabera, tresna ezberdinak erabili.

Zigorra tresna baliagarria da? Zigorra ez da bidea inondik inora ere. Hezitzaile askok, jada ez dakitenean zer gehiago egin, horra jotzen dute. Ikerketa askok diote zigorra epe luzera ez dela ona. Umeak ez du ezer ikasten: beldurratik ez du hori egingo momentu horretan, baina etorkizunera begira ez da eraginkorra. Heziketa positiboan erakusten diogu zergatik ez dituen gauza batzuk egin behar: agian ez delako errespetuzkoa, ez dakielako nola kontrolatu bere emozioak, eta abar. Beti zerbait erakutsi behar diogu, bestela hurrengo batean ere gaizki jokatu du.

Lagun asko bide «errezena» hartzera ohituta daude –zigorrarena, alegia–. Zein aholku emango zenieke pazientzia gehiago izateko? Nik pazientziaren gakoa izango banu... kar-kar. Uste dut garrantzitsua dela begirada berri bat izatea umeakaz. Normalean amorrutik edota haserretik begiratzen ditugu. Gure eguneroko bizitza da korrika eskolara eramatea, lanera presaka joatea... Gure bizitzako erritmoak ez ditu gauzak errazten. Horregatik, nik beti gomendatzen dut aste-akabuetan praktikatzea heziketa positiboa. Normalean ez dugu horrenbesteko presarik, eta apurka-apurka egiten badugu, gero errazagoa egingo zaigu aste barruan goizeko 08:00etan

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

BETIKO
IKASTOLA

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

Politeknika Txorierriren iraultza teknologikoan parte har ezazu

Etengabeko aldaketan dagoen hezkuntza zentroa da Politeknika Txorierrri, non pertsonak hezten dituzten beraien etorkizun profesionala eraikitzen laguntzeko.

Berrikuntza teknologikoa ingurunea aldatzen ari da, eta gizartearen eraldaketa digitalaren agertoki horrek bultzatu du Politeknika Txorierrri akzioa hartzea. Ikastetxea erabat egokituta, ikasleen garapen integrala bultzatu da testuinguru berri honetan.

Ekintza nagusietako bat izan da aretoak hutsetik sortzea, teknologia berrien zentrorra egokitzeko. Horieta bat Errealitate Birtualarena izan da, ikasleari ingurune ezberdinetako simulazioetan murgiltzeko aukera ematen dion gune gisa sortua, hainbat lan-egoerari konfiantza eta trebetasun handiagoz aurre egiteko. Beste gela batean ukipen-pantailak jarri dira eta ikasleei murgiltze-esperientzia bat eman zaie, lanak modu parte-hartzaileagoan egiteko aukera ematen diena.

Beste erabilera-eremu batzuk ere eguneratu dira, gradu, espezializazio eta ikastaroetan eskaintako prestakuntza gehiago sustatzeko. 3D diseinu eta inprimaketa gelan makina berriak daude, ikasleek hiru dimentsioko ereduak diseinatzen eta ideiak objektu



www.politeknikatxorierrri.eus

LAN-MUNDURA BEGIRA

Ikastetxea Bizkaiko enpresa-ehunarekin etengabeko lankidetzan dabil, formakuntza pertsonalizatua eta praktika profesionalak eskaintzeko.

ukigarrietan gauzatzen ikasteko.

Zentroko gunerik industrialenak, tailer mekanikoak, digitalizazio-prozesu bat ere izan du, pantailak, IOT sentsoreak eta IOT plataformako monitoreak inplementatuz. Instalazioen eta baliabideen erabilera eraginkorragoa eta iraunkorragoa egitea da helburua.

Robotikako laborategian robot berriak eta ikusmen artifizialeko kamera bat integratu dira. Horrek abangoardiako teknologia aurreratuetan trebatzen ditu ikasleak, enpresetan gero eta garrantzi handiagoa duen arloetan.

IOT Lab ikasgelan, eraldaketa digitaleko laborategian, hiri eta industria adimendunetarako teknologiak aztertzen ditu ikasleak, hala nola zibersegurtasuna, Big Data



POLITEKNIKA TXORIERRI



Eman izena:
politeknikatxorierrri.eus

HEGAN

egiteko aukerak >>

Formación Profesional y Bachillerato
Lanbide Heziketa eta Batxilergoa



Maitane Aurrekoetxea Astronomia tailerra

«Umeei oso deigarria egiten zaie konstelazioen atzean dagoen mitologia»

NAHIA MARTINEZ GONDRA

Maiazaren 31tik ekainaren 21era, barikuetan, astronomia tailerra egingo dute Urdulizko kultur etxean, Udalaren eta Zientziapolisen eskutik. Hala, 6-12 urteko umeak espazioan barrena ibiliko dira hiru saio praktiko eta gaueko behaketa batez. Maitane Aurrekoetxeak azaldu dizkigu horrelako tailerrek umeen hezkuntzan dituzten onurak.

Zer jarduera egingo dituzue? Hiru tailer egingo ditugu, gaueko behaketa batez batera. Lehenengoan, eguzki-sistemaren maketa egingo dugu. Bigarren saioan, konstelazioak aztertuko ditugu, eta etxeko proiektore moduko bat egingo dugu konstelazioak behatu ahal izateko. Hala, gaueko irteerari begira ikasten joango gara. Hirugarren tailerlean, kohete espazial bat eraikiko dugu. Hori erreakzio kimiko baten bidez propulsatuta egongo da, eta, ekintza horren bidez, lehen bidaia espazialei eta agenzia espazialei buruz hitz egingo dugu.

Zein da tailer hauen helburua? Jakin-min handia sortzen die haurrei espazioak. Izan ere, gai horri buruz ikastetxeetan ematen den edukia nahiko mugatua da. Beti gauza bera izaten da: planetei eta ilargiaren mugimenduari buruz hitz egiten dute. Eta errealitatea da espazioa askoz gehiago dela. Kuriositate horretatik abiatzen gara.



PortuSteam akademiaren barnean, Zientziapolisen proiektua sortu zen. M.A.

«Jokoa eta esperimentazioa ikasteko modurik onena da. Ikasten dute taldean lan egiten, eta arazoak konpontzeko pentsamendu logikorako gaitasun handiagoa izaten dute»

Zein da haiek gehien harritzen dituen gauza?

Planeten tamaina ezberdinak ezagutzeko eta planeta batzuk gaseosoak direla jakitean asko harritzen dira. Konstelazio-tailerlean ere, oso deigarria egiten zaie konstelazioen atzean dagoen mitologia guztia. Ipuin moduko bat da haientzako. Kohetearen tailerlean, dena harritzen die: euren kohete propioa hegaz egiten ikustea, baita gertatzen den erreakzio kimikoa bera ere.

Uste duzu haurrek hobeto xurgatzen dutela ezagutza tailer hauen bidez?

Bai, zalantzarik gabe. Jokoa eta esperimentazioa ikasteko modurik onena da. Ikasten dute taldean lan egiten, eta arazoak konpontzeko pentsamendu logikorako gaitasun handiagoa



Ikastolenkartea

www.anderdeuna.eus



INTERESA IZANEZ GERO,
BETE HURRENGO GALDETEGIA
ETA HARREMANETAN JARRIKO
GARA ZUEKIN.

HH1eko matrikulazioa

URTE OSOAN
ZABALIK



ander deuna
IKASTOLA

*Biharko mundua
gaur eta hemen*

Fadura LHII: Lanbide Heziketa ikastetxea eskualdean

Fadura LHII ikastetxeak 40 urte baino gehiago daroatza kalitatezko zerbitzua eskaintzen, eta eskualdean enpresen eta inguruaren erreferentzia izatea lortu du. Gazteak arlo teknikoan prestatzea da zentroaren helburua, beti ere balioetan oinarritutako hezkuntza bat eskainiz, lan-munduan edo beste ikasketa batzuetan erraztasunez integra daitezten.

1980tik daroa ikastetxeak eskaintza zabala ematen Lanbide Heziketan: goi- eta erdi-mailako heziketa-zikloak, heziketa duala, enplegurako formakuntza, zereginen gela... Algortako Fadura inguruan dago, garraio-zerbitzu publikoetatik hur. Irakas-baliabide eta instalazioei dagokienez, ikastetxeak kalitatezko ekipamendua eskaintzen du, eta ikasleen eta enpresen asebetetzea urtez urte handitzen doa, horien beharrez erantzunez.

Urbe Kostan erreferentzia den ikastetxe honek eskura dauzkan baliabide guztiak erabiltzen ditu: errendimendu handiko gelak, metodologia berritzaileak, teknologia aurreratuena... Gainera, ikasleek programa ezberdinetan parte hartzeko aukera daukate; adibidez, lan-praktikak inguruko enpresetan ez ezik, atzerriko enpresetan egin ditzakete Erasmus+ programaren bidez, edo ikasi eta lana aldi berean bateratu DUAL sistemak ematen dituen aukera ezberdinen bitartez.

Aurrematricula egiteko epea maiatzaren 6tik 24ra da. Informazio gehiago behar baduzu, hurbildu zaitez ikastetxera edo sar



Hezkuntza eskaintza:

Goi-mailako heziketa-zikloak

- Automatizazio eta Robotika Industrial (A eredua) Automatización y Robótica Industrial
- Fabrikazio Mekanikorako Produkzioaren Programazioa (A eredua) Programación de la Producción de la Fabricación Mecánica
- Haur-hezkuntza (D eredua)
- Osasun Dokumentazio eta Administrazioa (A eredua) Documentación y Administración Sanitarias
- Gizarte eta kirol-irakaskuntza eta animazioa (D eredua)

Erdi-mailako heziketa-zikloak

- Telekomunikazio-instalazioak (A eredua) Instalaciones de Telecomunicaciones
- Mekanizazioa (B+ eredua) Mecanizado
- Karrozeria (A eredua) Carrocería
- Ibilgailu automobilen elektromekanika (A eta B ereduak) Electromecánica de Vehículos
- Erizaintzako zaintza osagarria (D eta A ereduak) Aux. Enfermería
- Osasun-larrialdiak (D eta A ereduak) Emergencias Sanitarias

Lanean zein langabezian daudenentzat «Lanbide» ikastaroak

Zereginen gela

Lan-kompetentziak egiaztatzeko prozedurak

Info +: IDAZKARITZAN: 08:30etik 14:00etara egunero, eta 15:30etik 17:00etara astelehen, martitzen eta eguenetan. **ONLINE:** www.fadura.eus

Lanbide-Heziketako Ikastetxe Integratua



Centro Integrado de Formación Profesional

AURREMATRIKULA / PREMATRÍCULA:

Maiatzaren 6-tik 24-ra

Del 6 al 24 de mayo



www.fadura.eus
944 06 90 00
GETXO BIZKAIA







Eman izena/ Apúntate:
www.fadura.eus



HEZKUNTZA SALA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



LAN POLTSA PROPIA
BOLSA DE TRABAJO PROPIA
dual

Iratxe de Lara Tantak elkarteko kidea

«Konturatu behar gara itsasoak bizitza eta aukera asko ematen dizkigula»

NAHIA MARTINEZ GONDRA

Apirilaren 15etik 21era, Urduliz itsasoaren dibulgazioaren erdigune bihurtu zen Urez Ur Festagaz, Urdulizko Udalak sustatutako eta Tantak GKEak antolatutako jaialdiagaz. 1.100 lagun baino gehiago batu ziren, horien artean, 6-12 urteko 350 ume. Hala, itsasoan barrena murgildu gara jaialdiko Tantak elkarteko Iratxe de Lara antolatzaileagaz.

Nolakoa da umeek itsasoarekiko duten kontzientziarioa? Esango nuke umeak askotan helduak baino kontzientziatuago daudela. Eskoletara goazenean, galdera asko egiten dizkiegu, eta erantzun asko jada badakizkitez. Guk gero informazio hori osatzen laguntzen diegu. Oso eraginberak dira: asko larritzen dira irudiak ikusten dituztenean, esaterako, dortoka batena plastiko batean harrapatuta.

Ume txikiak izanda, zein da erabiltzen duzuen tonua gai horiek lantzeko? Erabiltzen ditugu haien bizipenak gauzak azaltzeko. Adibidez, galdetzen diegu ea hondartzara joaten direnean noizbait zikinkeria ikusten duten. Horrelako esperientziez baliatzen gara, itsasoarekiko harreman zuzena eraikitzeko. Eskulan oso sinpleak ere egiten ditugu hondartzan aurkitutako zaborrarekin. Halaber, jaialdian, azalpenak adinaren arabera moldatu genituen: bi txandetan



Ana de Lara eta Iratxe de Lara jaialdiko antolatzaileak. HO DEI TORRES

«Nahiz eta itsaso ondoan bizi, ez dugu itsasoarekin baso batekin dugun konexio berdina. Oso beharrezkoa ikusten dugu itsasoarekiko harreman hori sortzea»

banatu ginen tailerraren kalitatea handiagoa izateko.

Zergatik uste duzu direla beharrezkoak horrelako ekintzak? Batzuetan helduok beste alde batera begiratzen dugulako: ezagutzen ditugu arazoak, badakigu zer gertatzen den, baina ez dugu begiratu nahi. Umeek argiago ikusten dute. Nahiz eta itsaso ondoan bizi, ez dugu itsasoarekin baso batekin dugun konexio berdina. Zorte handia dugu; hemen, goizero-goizero, hondartzak garbitzen dituzte. Tantak elkartetik garbiketarako antolatzen ditugunean eskatu behar izaten diegu ez egiteko. Halere, mareak gora egiten duenean berriro dator gizakiok itsasora botatako zikinkeria. Oso beharrezkoa ikusten

SAN

NIKOLAS

IKASTOLA

SANIKOLAS.EUSIZATOK

ikastolenekartea

Arenezpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

94 430 54 78
ikastola@sanikolas.eus

f i y

Lemoiz HLHI Robotix C360

Robotikan eta programazioan murgiltzeko programa berritzailea dute

Eskola txikia izan arren, hezkuntzak dituen berrikuntzak besoak zabalik hartzen dituzte, ikasleen formazioa ahalik eta osoena emateko asmoz.

Hezkuntzaren munduak bizi dituen aldaketetan sakon murgiltzen den eskola txikia da Lemoizkoa, irakaskuntzaren berrikuntzaren alde egiten duena beti. Ikasleen irteera-profila ahalik eta aberatsena izan dadin, hainbat proiektu bideratzen dituzte bertan, horietako azkena: Robotix C360 metodologia aktiboa. Eskolako arduradunek azaltzen dutenez, horren bitartez, ikasleak ikaskuntza-mundu interaktibo eta praktikoa batean murgiltzen dira, eta euren hezkuntzaren protagonista bihurtu. Haur Hezkuntzatik hasita, BeeBot

AITZINDARIAK

Lemoiz HLHIn harro daude **Robotix C360** metodologiaren ezarpenean aitzindari izateaz.

robotagaz hasten dira lanean. Lehen zikloan, horregaz jarraitzen dute eta Legoak modu manipulatioan jorratzen dituzte.

Bigarren ziklotik aurrera, Robotix C360 plataformari hasiera ematen diote, non ikasleei erronka egiten zaien robotikaren eta programazioaren oinarriak aztertzeko, hirugarren zikloraino; hortik aurrera, erronka are zirrargarri eta konplexuagoak aurkezten zaizkie neska-mutilei. Arduradunek diotenez, Robotix C360 plataforma integrala da, aditu-talde baten orientazioa duena, eskolako aholkulari didaktikoa barne. «Gainera, plataforma euskaraz eskaintzen da. Gure irakasleek ikasle bakoitzaren hezkuntza-esperezia pertsonalizatu dezakete eta ahalik eta potentzial handiena lortzen ari direla

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA
EUSKALTEGI MUNICIPAL DE GETXO

UDAKO IKASTARO TRINKOAK: UZTAILEAN ETA IRAILEAN
CURSOS INTENSIVOS DE VERANO: EN JULIO Y SEPTIEMBRE

UZTAILEAN
Maila guztiak **A1-A2-B1-B2-C1**
Uztailaren 1etik uztailaren 22ra (80 eskola-ordu/5 ordu egunero)
PREZIOA: 88 euro
MATRIKULA ZABALIK: ekainaren 3tik 20ra arte

IRAILEAN
B1-B2-C1 mailak prestatzeko
Irailaren 2tik 23ra (48 eskola-ordu/3 ordu egunero) (64 eskola-ordu/4 ordu egunero)
PREZIOA: 52,8 euro/70,4 euro
MATRIKULA ZABALIK: ekainaren 3tik uztailaren 12ra arte

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE eraikina)
Santa Eugenia plaza, 1 (Romo) Getxo
944 646 299 – euskaltegi@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskaltegi | www.udaleuskaltegiak.eus/eu

Getxo *bizi ezazu* | Getxo *LIBURUTEGIAK* *bizi ezazu*

Hiru udalerritan, ingelesa zure eskura

Algorta, Urduliz eta Portugaleten kokatuta daude Real English akademiak; ingelesa erarik berritzaileenean ikasteko aukera eskaintzen duen zentroa.

Egungo beharretara egokituta, udako ikastaro trinkoak eskaintzen ditu Real Englishek, First (B2), Advanced (C1) eta Proficiency (C2) ikastaroetako azterketa ofizialak prestatzeko. Gainera, laguntzailegaz batera Erresuma Batuan egonaldiak egiteko aukera ere eskaintzen dute, uztailaren 7an aterata. Halaber, daborduko irekita dago 2024-2025 ikasturterako itxaron-zerrenda, beraz, ez galdu denbora eta eman izena lehenbailehen!

ZERK EZBERDINTZEN DITU? Konbentzionalismo akademikoetatik ihes egin eta metodologia fresko eta dinamiko baten aldeko apustua egiten



Metodologia komunikatiboa nagusi da Real Englisheko klaseetan.

NON?

Coro Biotz Alai plaza, 48991, ALGORTA

Aita Gotzon kalea 2, 48610, URDULIZ

dute. Hala, ahozko adierazpena elkarriketaren bidez sendotu eta ekitaldi sozialak antolatzen dituzte ikasleentzat. Sare sozialetan aurki ditzakezu, izan ere, eduki dibertigarri eta hezitzailea sortzen dute, batez ere, Instagram

24/25 ikasturteko aurrematrikula

aek
euskara praktikoa

Egin aurrematrikula



EKAINA						1	2
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	

AURREMATRIKULA ZABALIK!

Ekainaren 28ra arte,
www.aek.eus
webgunean edo AEKren
edozein euskaltegitan

ABANTAILAK:

- Ikasturte honetako prezioari eutsi.
- Ordainketa malguagoa.
- Lehentasuna taldeak eratzeko orduan.

Informazio gehiago nahi baduzu:

Leioa · 944646063 · lamia@aec.eus | **Getxo** · 944304734 · lauaxeta@aec.eus |
Plentzia · 946773607 · jentilbaso@aec.eus | **Gorliz** · 946773646 · jentilbaso@aec.eus
☎ 688 746 776

www.facebook.com/UribeKostako-AEK | www.aek.eus/blogak/uribekosta/
www.aek.eus

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

MATRIKULA EPEA:
UZTAILEKO IKASTAROA
Ekain osoan

IRAILEKO IKASTAROA
ekain osoan eta uztailaren 30era arte



EUSKARA ZERBITZUAREN DIRULAGUNTZAK - 2024



Aurten,
Erudioko autoeskoletan

gidabaimenakeuskaraz.eus
WEBGUNEA

Gidabaimenak Euskaraz

ateratzen baduzu,

200 € rainoko

dirulaguntza jaso
ahal izango duzu

Gainera, azterketa teorikoa euskaraz egiten duten herriko ikasleen artean 100 euroko erregai-txartel bat zozkatuko dugu.



info
+ago

Zure autoeskolan
edo Erudioko Euskara Zerbitzuan.
94 489 0128
euskara@erudio.eus



ERROTULAZIORAKO DIRULAGUNTZAK
2024
SUBVENCIONES ROTULACIÓN



Errotuluak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko dirulaguntzak

INFORMAZIORAKO QR KODEA
QR CÓD. con INFORMACIÓN



Subvenciones para la
rotulación en euskera
o euskera y castellano

EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZAK



designed by
freepik.com

Laguntzak eskatzeko azken eguna:



www.erandiokoeuskarazerbitzua.eus
euskara@erudio.eus
94 48 90 128



txombo
ibilaldia 2024 Getxo

Unai Arzubiaga Ibilaldia 2024

«Ikastola herrira are gehiago zabaldu nahi izan dugu»

Maiatzaren 26an ospatuko dute Ibilaldia, Algortan. Aurten, San Nikolas Ikastolak hartu du jaialdia antolatzeako ardura eta, iragarri dutenez, halakoak antolatzen eskarmentua izan arren, erronka handia izan da halako ekimen handi bat antolatzea. Horretarako, euren komunitatearen laguntza eskertu dute, auzolanean antolatu baitute dena: «Geure esker beroena haientzat».

TESTUAK: IKER RINCON MORENO ►

Hasteko, defini ezazu Ibilaldia berba gutxitan. Herri ekimen bat; Ikastolak bere inguru hurbilarekin batera antolatzen duen jai handi baina herrikoa.

San Nikolas Ikastolarentzat, zer suposatzen du Ibilaldi bat antolatzeak? Bada, San Nikolasentzat erronka handia da honelako ekimen bat antolatzea, ilusioa, zirrara eta lana eskatzen duena. Hala ere, aldi berean, barne kohesioa lantzeko eta euskalgintzaren alde Ikastolaren lan eskerga herriari plazaratzeko aukera eskaintzen du.

Ikastola, baina, ez da hasiberria zeregin horretan, daborduko laugarrenez heldu baitio erronka horri. Are, lehenengo Ibilaldia antolatzearen ardura hartu zuen, 1978an. Eskarmentu hori lagungarria izan zaizue? Bai, baina edizio bakoitzak bere lana du, bere testuinguruari begirako baldintzak baititu, eta, gainera, belaunaldi ezberdinek antolatu baitituzte. Horrek gogoeta bat egitera eraman gaitzake, eta hori da San Nikolas belaunaldiz belaunaldi eraberritzen ari den ikastola bat dela. Berbarako, azkenekoz 2002koa antolatu zuten horiek, gaur egun agian ez dute bazkide aktibo jarraituko, baina beti egongo dira nolabaiteko bultzada emanaz. Belaunaldi ezberdinen arteko auzolan horrek indartsu egiten gaitu.

Ibilaldia

«Ikastolak bere inguru hurbilarekin batera antolatzen duen jai handi baina herrikoa da»

Hamaika batzorde

«Ibilaldia antolatzeako, gai bakoitzari dagokion batzorde bana antolatu dugu, hala nola arropari lotutakoa, azpiegiturei begirakoa eta, berritasun gisa, jasangarritasunari lotutakoa»

Auzolanean antolatzen den jai izanik, zelako lantaldea dago honen guztiaren atzean? Lan karga handia da, eta, hori aurrera eramateko batzorde ezberdinak osatu ditugu. Bakoitzak bere zeregina du, gai banari lotuta, eta nahiko modu autonomoan ari dira lanean, baina betiere beste batzorde orokor batekin koordinatuta uneoro.

Zeintzuk dira batzorde horiek? Arropari dagokion bat dago, oso indartsu dabilena; jende asko dago horretan lanean, asko eta asko ilunpeko zereginetan. Kulturari lotutako beste bat dugu, urte osoan zehar askotariko ekimenak antolatzen aritu dena. Azpiegiturei begira, beste bat dugu; babesleak lortzera bideratutako beste bat; eta jasangarritasunari lotutako beste bat: erronka garbia deitzen dioguna. Azken hau berria da, eta guretzat garrantzi handia du horrek, Ikastolaren nolabaiteko oinarriekin bat egiten duelako.

Zeintzuk neurri hartuko dituzue Ibilaldiaren jasangarritasunari bide egiteko? Hor badaude zenbait jarraibide, besteak beste, Ihobe erakundeak zehaztutakoak. Gure kasuan, zortea izan dugu Ikastolan baditugulako horretan adituak diren hainbat pertsona, eta, horri esker, jaialdiko ekimen guztiak modu jasangarrian antolatzen eta egiten saiatu gara, eta, hein batean, esango nuke lortu

dugula ere.

Batzorde horietan, San Nikolas Ikastolako langileez gainera, gurasoak, ikasleak, ikasle ohiak eta abarrak ere badaude, ezta? Bai, denetarik dago, eta hori da dugun aberastasun handienetako bat. Esan badugu Ibilaldiaren kanpora begirako helburua dela Ikastola plazara ateratzea, barne helburuetako bat da barne-kohesioa, eta horretarako behar-beharrezkoa da denok elkarrekin egotea. Eta hau ere jarriko nuke hizki larriz: herriari begirako ekintza bat denez, herriko hainbat eragile ere egongo dira bertan.

Maiatzaren 26ko egun handiaz gainera, Ibilaldiak bestelako hamaika ekimen eskaini ditu hilabeteotan... Bai, egun handia da hori, baina Ibilaldiaren nolabaiteko hasierako pausoa aurreko jaialdia amaitu eta hurrengo egunean hasten da. Beraz, iaztik ari gara hainbat ekimen prestatzen, kulturari, kirolari eta beste gai batzuei lotutakoak.

Eta maiatzaren 26a bera zelako eguna izango da? Dagoeneko kasik erabat antolatuta daukagu dena; gauza gutxi falta dira lotzeko. Ibilaldi batean guneak izan ohi dira protagonistak, eta, aurten, lau izango ditugu: lehenengoa, ikastola bera, bertan emango zaio hasiera jaiari, 11:00etan, ekitaldi instituzionalarekin; bigarrena, San Nikolas plaza eta haren inguruak; hirugarrena, Portu Zaharreko beheko zelaigunea; eta azkena, Ereaga hondartza. Nahiko kutsu urbanoa eman diogu, San Nikolas Ikastola bera herrikoa delako eta herrian txertatuta dagoelako.

Zein izango da gune bakoitzaren berezitasuna, edo nori zuzenduta egongo da horietako bakoitza? Egia esan, denetarik egongo da gune guztietan. Familian zein lagun-artean gozatzeko parada egongo da. Egiari zor, badaude zenbait eskaintza adin tarte bati zuzenduago egon litezkeenak, besteak beste, Goazen, 4. gunean; musika eta kontzertuak ia etengabe 3. gunean; euskal dantzak zein Beleren kontzertua 2. gunean; bertsolariak, magia eta tailerrak 1go gunean... Eta beste hamaika sorpresa gehiago!

Noiz jakinaraziko duzue behin betiko egitaraua? Maiatzaren 14an Euskaltzaindian eskainiko dugun prentsaurrekoan. Hala ere, aurreratu dezakeguna da orotarikoa izango dela, jende eta adin guztiei begira dagoena.

Hezkuntza Lege berriaren inguruko



Ikastolaren

4

gune egongo dira honela banatuta: San Nikolas Ikastola, San Nikolas plaza, Portu Zaharra eta Ereaga hondartza.

%99

Egitarauaren zati handiena lotuta dago daborduko, baina horren berri izateko maiatzaren 14ra arte itxaron beharko da.

eztabaidak antolaketa-lanetan bete-bete harrapatu zaituzte. Testuinguru horretan, ikastolen papera zein den jarri da askotan mahai-gaiean; bada, zer nolako garrantzia du gaur egun San Nikolas Ikastola bezalako hezkuntza-zentro baten baloreak defendatzea edo azaleratzea? Bai, bete-bete harrapatu gaitu lege-egitasmo horren baitan sortu zen ika-mika. Alde bien arteko talka gogor bat egon zen, baina, egia esan, gu ez gara talka horretan ongi islatuta sentitu. Gu herri-izaeradun kooperatiba bat gara, eta jendeak aspalditik ezagutzen gaitu.

Gure baloreetako bat da inklusibo izatea, eta Ibilaldia izan daiteke horren ispiluetako bat gero eta gehiago izateko. Eta gero eta gehiago izate horretan sartzen dira oraindik ere euskaraz bizi ez diren horiek. Gure egin nahi ditugu, eta horiekin partekatu nahi dugu



komunitateak osatutako hainbat batzorderi esker eraman dute aurrera Ibilaldia. HODEI TORRES

guk daukagun altxor handi hau.

Inklusibo izateaz gainera, zeintzuk dira San Nikolas Ikastolaren baloreak? Baditu hainbat balore oinarri moduan hartzen direnak, eta zehazki dira: euskalduntasuna, bizikidetza, inklusibitatea, hezkidetza, euskal herritartasuna, inguruarekiko ardua, hezkuntzan kalitatea eta hobekuntza, lankidetza eta partaidetza, unibertsaltasuna eta publikotasuna. Beraz, saiatu gara balore horiek guztiak, hein handi batean behintzat, txertatzen Ibilaldia izango den jaialdi horretan, bakoitza egitasmo baten baitan, edo auzolana bezala zeharkakoa izan daitekeen antolaketa lan horretan.

1963an sortutako ikastola bat da San Nikolas; zelan aldatu da proiektua orduko hartatik

Etorkizunera zer? «Ibilaldian lortutako dirua Haur Hezkuntza eta espazio anizkoitzak hartuko dituen eraikin berria finantzatzera bideratuko dugu, besteak beste»

gaur egunera? Gizartearekin batera aldatu den hezkuntza zentro bat da, oso herrikoia, herrian oso txertatuta dagoena. Hasieran, frankismo garaian, klandestino zen ikastola bat zen, bederatzi familiaren ekimenez sortutakoa; ordutik, politika-aldi ezberdinetara egokitzen jakin du eta, gaur egun, 750 familia inguru dago horren barruan, 1.150 ikaslerekin.

«Txonbo» da aurtengo leloa. Zer dela eta? Hitza bera indartsua da, eta baita esanahia ere. Txonbo egiteak esan nahi du uretan murgiltzea, eta horixe da guk egin nahi dugun deia: bultzada eman jendeari euskararen murgildu dadin, inolako zalantza barik eta inolako konplexu barik. Gainera, euskarazko hitza izanik ere, erdal hitzunek ere erabiltzen dute. Hori horrela, aproposa iruditu zitzaigun islatzeko euskarak ere asko duela eskaintzeko inguruari eta gainontzeko hizkuntzei.

Horregaz batera ere, bideo-klipa argitaratu zenuten martxoan. Horretarako, inguruko jendea izan zenuten bidelagun; zelakoa izan da esperientzia? Gure hautua izan zen, nolabait, kilometro zero edo gertuko jendearekin egitea. Bagenekien askotariko jendea dugula inguruan, jakintza arlo ezberdinetakoak, tartean, musikari lotutakoak eta sortzaileak. Eta oso onak, gainera, maila handikoak. Alabaina, garrantzitsua izan zen dena koordinatzea, eta horretarako batzorde propio bat sortu genuen. Hala, zenbait gurasok eta musika-adituk euren ekarpenak egin zituzten. Letra Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) sortu zuen. Emaizarekin oso pozik gaude, eta bideo-klipak oso harrera ona izan du.

Zelako Ibilaldia aurreikusten duzu? Gu ziur gaude, eguraldia lagun, arrakastatsua izango dela. Arrakasta izango du ditugun kultur ekitaldiengatik, eskaintza oso oparoa delako. Gainera, Getxo bera oso erakargarria da, eta baita oso irisgarria garraio publikoaren aldetik ere. Herriko jendeak ere gozatzeko parada handia izango du.

Horrez gainera, Ibilaldiak berak helburu ekonomikoak ere baditu; zer asmo duzue lortutako diruagaz? Bai, Ibilaldia antolatzeko ardua eskatzerakoan argi genuen ez genuela helburu bakar bat. Alde batetik, euskara eta euskal kultura ardatz dituen ikastola herrira are gehiago zabaltzeko aukera eskaintzen digu honek, baita herriko eragile, erakunde eta taldeekin harremanak sendotzeko ere. Bestetik, finantzaketari dagokionez, pedagogia berrietara egokitzeko baliabideak

Maiatza-ekaina

Barrika

Maiatzak 24, barikua

Inguru Minguru tailerra

17:00 | Ander Deuna aretoan

Poltsak kustomizatzeko tailer irekia.

Maiatzak 24, eguaztena

BBK Abesbatzen Kontzertuak

20:00 | Andra Mari elizan

Berango

Maiatzak 25, zapatua

Antzokiaren berrinaugurazioa

19:00 | Berango antzokian

Fernando Ansoleagari esker ona adierazteko ekitaldia, doan. Antzokiak bere izena hartuko du.

Ekainak 1, zapatua

Ikasturte amaierako erakustaldia

18:30 | Berango antzokian

Kultur Etxeko eta Nagusien Etxeko aisialdi ikastaroen eta Udal Dantza Eskolaren emanaldia.

Ekainak 9, domeka

Dantzerkanen antzerki musikala

13:00 | Berango antzokian

Dantzerkan akademiako haurren emanaldia, doan.

Erandio

Maiatzak 18, zapatua

Emakumeen truke gastronomikoa

18:00 | Merkatu zaharrean

Emakumeen topaketa kultural eta gastronomikoa. berdintasuna@erandio.eus eta 944 890 240.

Maiatzak 19, domeka

Antzerkia: Txizatoki bat eszenatokian eta Hamalau

19:00 | Josu Murueta kultur etxean

Patxo Telleriak ekoiztu eta antzezututako obra eta, ostean, Mikel Martinezen bakarriketa.

Maiatzak 25, zapatua

Antzerkia: Altsasu

20:00 | Merkatu zaharrean

Koxka tabernan gertatutakoari buruzko obra.

Getxo

Maiatzak 18, zapatua

Udaberriko bertso-bazkaria

14:30 | Benta kultur elkartearen

Sustrai Colina eta Jone Uria bertsolariakaz. Izen-ematea: 605 704 385 edo albegetxo@gmail.com.

Maiatzak 25, zapatua

Musika: Sokairera bidaia

18:30 | Xake plazan

Sokaire biolin-jotzaile bikoteak musika klasikoaren garaietan bidaiatuko da. Getxo Eszena Kalean.

Maiatzak 23, eguena

13. Berbodromoa

Santa Eugenia eta San Nikolas plazetan

Ordutegia eta informazio guztia hiruka.eus atarian.

Maiatzak 26, domeka

Ibilaldia

Algortan

San Nikolas Ikastolak «Txonbo» egingo du Bizkaiko ikastolen jaian. Egitarau osoa maiatzaren 14tik aurrera.

Maiatzak 31, barikua

Kontzertua: Akelaia

21:00 | Muxikebarrin

Ondolion bere lehen diskoa aurkeztuko du.

Gorliz

Maiatzak 19, domeka

Nordic Walking Eguna

10:30 | Gorlizko kiroldegian

Hastapen tailerra eta 7 kilometroko irteera.

Maiatzak 22, eguaztena

Ipuin kontalaria

17:00 | Sertutxena kultur etxean

IGEk antolatutako ekintza.

Maiatzak 29, eguaztena

Irakurketa taldea

18:00 | Gorlizko udaletxean

Koldo Izagirregaz *Franco hil zuten egunak* liburua aurkeztuko da.

Leioa

Maiatzaren 16tik 19ra

Umore Azoka

Leioan

Leioako Kaleko Artisten Azoka handia: antzerkia, dantza, zirkua...

Maiatzak 31, barikua

Lamiako Maskarada

17:30 | Lamiakon

Auzoko ikuskizun mitologikoa.

Lemoiz

Maiatzak 18, 19, 25 eta 26

Andrakako jaiak

Andrakan

Laster egitarau osoa hiruka.eus atarian.

Maiatzak 27

Bizkarsoro filmaren emanaldia

19:00 | Armintzako kultur etxean

Josu Martinezen filma. Doako sarrera.

Plentzia

Maiatzak 15, eguaztena

Berbaldia: Eoliloak Uribe Kostan

19:00 | Goñi Portalen

Herri Lurrak elkarte ekologistak antolatuta.

Maiatzak 19, domeka

Plentziatruk

11:00 | Ontziola plazan

Bigarren eskuko azoka.

Maiatzak 25, zapatua

Kantatzen duen herria

Plentziako kaleetan

Musika emanaldiak egingo dituzte egunean zehar.

Sopela

Maiatzak 11, zapatua

Sopelako Kuadrilla Eguna

13:30 | Jauregizar plazan

Palestinari elkartasuna emateko egitaraua prestatuko dute.

Maiatzaren 17tik 19ra

4. Argazkigintza jardunaldiak

Kurtzio kultur etxean

UK Foto elkarteak antolatutako eskualdeko argazkigintza jardunaldia. Gaia: fauna.

Urduliz

Maiatzaren 13tik 25ra

Erakusketa: Aerografia

Urdulizko kultur etxean

Idoia Urrutxurtu Anguiano artistak aerografia teknika erabilia egindako artelaren erakusketa.

Maiatzak 16, eguena

Aurkezpena: Urduliz aldeko

Berba Lapikoa

19:00 | Urdulizko Kultur etxean

Iñaki Gilisastik eskualdeko euskararen inguruan egin duen soinu-artxiboa aurkeztuko du.

Maiatzak 19, domeka

Haurtzaroko basoa: auzolana

10:00-14:00 | Haurtzaroko basoan

Haurtzaroko basoa berreskuratzeko auzolanak egingo dituzte.

Lehen/Orain **Sopelako San Pedro eliza, XX. mendean**



Uribitakora



Lehentasuna / Preferentzia



Lehentasun hauek goian adierazitako taldeei utzi behar zaizkie, derrigorrez (EHAA, 126/2001 Dekretua)
Preferentia de cesión obligatoria para los colectivos arriba indicados (BOPV Decreto 126/2001)

ALBE

Algortako
Bertsolari
Eskola

TESTUA
Daniel de
Miguel Avecilla

DOINUA
Bizitza ez da
nehoiz egoiten

ARGAZKIA
Jorje Perez

Beraien lekua

Luzaro bizi, laurogeigarren
urtebetetze-eguna;
edo mundua ikustekotan
lau hanketako laguna;
haurra altzoan, sabel barruan,
guraso berri, haurduna;
sorpresa ala esperokoa
gogorra samur-biguna;
halabeharrez hartu behar da
bizitzak dakarkiguna.

Datorren hori asmatzekotan
airera dadoa bota,
kapritxosoa baita sarritan
banaketaren azoka,
nola hasten da? zer da erdian?
zelan amaitzen da soka?
Lasai ibili munduan ala
une orotan borroka,
eguneroko jarduera bat
bihurtzen bada erronka.

Mugikortasun urria ere
patuak badu ekarri,
samurragoa bada, seguru,
lagunduz gero elkarri.
Edonor egon liteke eta
halako batean sarri,
bakardadean zer sentitzen den
inork nahi badu igarri,
beiran begia ipini eta
beraien lekuan (ez) jarri.

Getxo Eszena Kalean Aire zabaleko arte eszenikoen programa

Arte eszenikoen askotariko eskaintza gozagai egongo da hilabeteotan Getxon



Saio guztiak Xake plazako anfiteatroan izango dira; euria eginez gero, berriz, Romo ikastetxean.

Maiatzetik urrira bitartean, aire zabalean askotariko kultur eskaintzaz gozatzeko aukera eskainiko du Getxo Eszena Kalean egitasmoak, doan. Saio guztiak euskaraz izango dira.

IKER RINCON MORENO ►

Udaberrri bete-bete gaudela, eguraldi ona aprobetxatuta, aire zabaleko arte eszenikoen programazioari hasiera eman zioten Getxon joan den zapatuan, hilaren 4an. Hala, urriaren amaierara bitartean, adin guztiei zuzendutako antzerki, dantza, zirku eta askotariko generoez gozatzeko aukera egongo da Areetako Xake plazako anfiteatro berrian (euria eginez gero, Romo ikastetxean izango dira saioak). Estreinaldian *Susto* zirku-clown saioaz gozatzeko aukera izan zuten bertara gerturatutakoek, eta, hilaren 11n, Hortzmuga teatroaren *Agurea, urpekaria eta itsasoa* antzerkiaren txanda izango da, 18:30etik aurrera. Antolatzaileek azaldu dutenez, eskaintza guztia euskaraz izango da, edo testurik gabekoa. Hala, aire zabalean kulturaz doan gozatu gura dutenek, zapaturo hitzordu ezin hobea izango dute Getxon. Hala ere, uda tarteko, arduradunek gogoratu dute abuztuan eta irailean ez dela saiorik eskainiko, eta urrian berreskuratuko direla uztailen

Egitaraua

Maiatzak 11, zapatua

18:30 *Agurea, urpekaria eta itsasoa* antzerkia, Hortzmuga teatroa.

Maiatzak 18, zapatua

18:30 *Dale Ramón* antzerkia, Trapu Zaharra.

Maiatzak 25, zapatua

18:30 *Sokairera Bidaia* musika emanaldia, Sokaire Biolinistak.

Ekainak 1, zapatua

18:30 *Harreman* zirku-ikuskizuna, Zirkozaurre.

Ekainak 8, zapatua

18:30 *Welcome & Sorry* clown-ikuskizuna, Ganso & Cía. Testurik gabe.

Ekainak 15, zapatua

21:00 *La medida que nos ha de dividir* dantza-ikuskizuna, Qabalum Colectivo. Testurik gabe.

Ekainak 22, zapatua

18:30 *Adabaki*, clown-ikuskizuna, Bapatean Zirko. Testurik gabe.

Ekainak 29, zapatua

18:30 *Nao-Now-Nau* zirku-clown, Cía. Barre. Testurik gabe.

Uztailak 13, zapatua

18:30 *Ondoloin* dantza-ikuskizuna, Organik Dantza. Testurik gabe.

Uztailak 20, zapatua

18:30 *Ipurbeltz* antzerki-zirkua, Ameztu Antzerkia.

Uztailak 27, zapatua

18:30 *Bonba bat naiz* antzerki-clown, Intujai.

Urriak 5, zapatua

18:30 *Aiurri* dantza-ikuskizuna, Aukeran. Testurik gabe.

Urriak 12, zapatua

18:30 *La kermés del vermú* antzerkia, Gorakada Teatro.

Urriak 19, zapatua

18:30 *Pausa zirku-clown*, Cía niMú. Testurik gabe.

Urriak 26, zapatua

18:30 *Lanean 75 urte bete arte*, antzerkia. Cía Barsanti.

Lizar Begoña *Mundu zitalaren kontra* eleberria

«Istorioan barrena badaude kritika zantzuak»

Martin Parr artistaren argazki-segidan oinarrituta, Benidormen lekututako istorioa kontatu du sopoloztarrak, Igartza Sariaren laguntzagaz argitaratu duen *Mundu zitalaren kontra* izeneko bere lehenengo eleberrian.



Lizar Begoña, eleberria eskuetan duela. HODEI TORRES

IKER RINCON MORENO ▶

I tzalkinez betetako hondartza baten aurrean, kiosko bat, eta gainbeheran dagoen paperezko prentsa saltzeko emakume bi; belaunaldi, leku eta errealtate ezberdinetakoak biak. Testuinguru horretan, protagonista horien arteko pasadizoak eta barne-liskarrak mahai-gaineratu ditu Lizar Begoña sopoloztarrak *Mundu zitalaren kontra* izeneko lanean, bere lehenengo eleberrian. Martin Parr artistaren argazkietan oinarritutako iruditegia baliatu du horretarako, eta Ainara Alkorta margolari eta lagunak egin du azala, kolorez betetako, Benidorm bezalako «basamortu urbano» baten dekadentziaz eta kontrastez hausnartzera gonbidatzen gaituena. Aitortzen duenez, hainbat arrazoirengatik aukeratutako lekua da, «antiliterario samarra delako,

oso erromantizatuta ez dagoena eta parodiarako tartea ematen duena». Ironia eta umorea txertatzeko leku egokia iruditu zitzaion, «betiere gai askoren sakontasuna bistatik galdu gabe». Gaietako dagokienez, mezu zehatzik plazaratzeko asmorik ez izan arren, istorioan hainbat kritika zantzu topa daitezke, hala nola turistifikazioa eta masibotasuna, paperezko prentsaren kontsumoaren gainbehera, digitalizazioa, prekaritatea eta sexualitatea.

25. Igartza Sariari esker argitaratu du idazle sopoloztarrak liburua. Bere lehenengo eleberria da honakoa, aurretik poesia-liburu bi argitaratu ostean. Aitortzen duenez, salto bat egon da aurrekoetatik oraingora, «erritmo, trataera eta estilo aldetik bestelako gakoak» dituelako narratibak. Hala ere, nabarmendu du asko gozatu duela egindakoagaz: «Urte bateko

Euskarari atera kontuk!

JOANES ATXA OLAIZ



Euskara zikinaren mantxak

E uskara zikintzen ari gara. Youtuberen eta sare sozialen mesedetan, gure esentzia galdu dugu. Laster erdaraz ariko gara, euskaraz ari garelakoan.

Eta hori honezkero gaingiduta genuela uste genuen, baina badirudi ezetz. Oraindik ere, asko dira gure hizkuntzan zikinkeria sartzen ari garela argudiatzen dutenak. Hala ere, sortu zen unetik egon da euskara beste hizkuntza batzuek inguratuta, ukipen egoeran. Euskara bakarrik ez, munduko beste hizkuntza guztiak ere, hala bizi dira. Euskarak, beraz, zikin-zikin daramatza bi mila urte baino gehiago.

Niko Etxartek «eneki jin zite *au coucou des bois*» esaten zuen bere kantuetan eta Gorka Urbizuk, ordea, «*dailovit*». Ez dakit zuei, baina niri behintzat bihotza pizten dit euskara zikin honek. Beraz, nola deituko diogu zikinkeria honi guztiari?

Uribe Kosta osoan, eta baita Bizkaiko beste herri askotan ere, *loit*u esaten zaio zerbait zikintzeari. Pertsona zikinari, berriz, *saskel* deitzen zaio gure inguruan. Azken hau horrenbeste erabiltzen den hitza da, ezen esapideak ere sortu dituen: haurrak zikin edo lokatzez beterik daudenean, *saskil-maskil* eginda daudela esaten zaie.

Horiekin batera, bada Euskal Herriaren luze zabalean hedatuta dagoen hitz bat, zikinguneak adierazteko. Belarrira arraro jotzen badigu ere, zikinkeria orbanak izendatzeko *mantxa* hitza, gutxienez XVII. mendetik erabiltzen da euskaraz.

Hala, euskal hiztunok bi euskara motaren artean aukeratzera behartuak ikusten ditugu geure buruak: globalizazioari aurre egin dion euskara, ala euskara bizi eta dinamikoa? Baina, horren

Erabakigarriak Uribe Kostan

XABIER BENITO Elkar-Podemoseko zinegotzia Getxon



Datuak argiak dira: hauteskundeetan emaitza txarrak lortu ditugu. Gure ardura da akatsak zuzentzea eta, oraingoan, botoa eman ez digutenei ilusioa piztuko dien proiektu bat berriro eskaintzea. Aldaketa politikoa Euskadin, lehen bezain beharrezkoa da gaur egun, eta horretarako, hauteskundeetako aukerak ez ezik, EAJk eta PSEk dakartzaten pribatizazio eta murrizketen agendaren aurkako herritarren eta gizartearen mobilizazioa ere suspertu behar dugu. 2016an hirugarren indar politiko bihurtu gintuen mobilizazio berak.

Badakigu Elkarrekin Podemos indar erabilgarria eta beharrezkoa dela Euskadin, hala erakusten baita Uribe Kostan. Eusko Legebiltzarrean ordezkartza galdu dugun arren, udaletan eta batzar nagusietan lanean jarraitzeko ilusio handia dugu, eta oraindik ere bertan gaude eta erabakigarriak gara: Getxon, akordioak aurrera ateratzeko, gure zinegotzigoa erabakigarria da; Urdulizen, Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzigoa kudeatzen dugu; eta, Sopelan, Toki Garapeneko arloa. Elkarrekin Podemos gabe aldaketaren bi gobernu horiek (Urduliz eta Sopela) ez ziratekeen posible izango. Eta, apirilaren 21ean, gu jokoz kanpo geundela, aldaketa, azkenean, Eusko Jaurlaritzan ez zen posible izan.

Sozialistak, erabakigarriak EJn

JORGE GONZALEZ PSE-EEko zinegotzia Erandion



Hauteskundeak amaituta, emaitzek inkestean isla izan ziren. EAJk, eserlekuetan behera egin arren, irabazi zuen botoetan, EH Bilduk igoera handia izan zuen, baina bigarren geratu zen eserlekuetan berdinduta eta, aurreikuspen altuenen arabera, PSE-EEK gora egin zuen eserlekuetan eta botoetan.

PSE-EEK 2020ko emaitzak hobetu zituen, 30.000 boto eta bi eserleku gehiagorekin. Ondorioz, garrantzitsuagoa eta erabakigarriagoa izango da, eta alderdiaren zigelua jarri ahal izango du gizarte-politikan.

Eneko Anduezak berak adierazi zuenez, emaitza horiek «kanpainan esan dugunerako balioko zuten: euskaldunen bizitza hobetzeko, zerbitzu publikoak babesteko eta indartzeko, Euskadiko politika aurrerakoak bermatzeko, aniztasuna bermatzeko eta, azken finean, gehiengo zabal batek nahi duen politika egiteko». Egungo egoeran, gobernu egonkorra osatzeko, sozialistekin itunak egin beharko dira, eta horiek ezinbestekoak izango dira Eusko Jaurlaritzaren etorkizunean.

Lau urte geratzen dira euskal gizarteak eskatzen dituen gai asko eramateko, hala nola bidezko etxebizitza-politika bat, Osakidetza berri bat eta pandemiaren aurreko mailekin, agenda soziala politikaren erdigunean jarri arte. PSE-EE erabakigarria izango da horretan.

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Maitasun kontuetan obsesionatuta zabilta azken boladan. Bizitzak baditu bete zaitzaketen beste gauza asko, lasaitu zaitetz, lagun!



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Maiatzeko ilargi betearen loreen ilargia izateagatik da ezaguna. Baliatu zaitetz bere botereaz zure energiak garbitzeko eta indartzeko.



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Ligatzeko aplikazioetan ez duzu amorante euskaldunik topatzen... Utzi lotsak eta ezagutu jendea jaietan! Betiere errespetuz, noski.



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Hain pertsona ona izateak estresa sorrarazten dizu: beti zaude besteen nahiak eta beharrak asetzen. Izan bereiko eta pentsatu zugan!



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Domeka guztietan aje emozionalaren kontra borrokan zabilta. Krisi existentzialei ekintzakaz erantzutea komeni da.



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Heldu da momentua nagia ematen dizun hizkuntza horri egurra emateko. Jolastu berbakaz eta ondo pasatu ikaste-prozesuan!



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Egunero gertatzen zaizkizun pasadizo guztiakaz liburu bat idatzi zenezake. Hartu boligrafoa eta partekatu zure bizitza zoroa!



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Gauza txikiak motibazio ikaragarria sentituko duzu hil honetan. Energia horrek aurrera egiten lagunduko dizu; saiatu mantentzen!



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Oraindino ikusten ez duzun arren, asko duzu munduari eskaintzeko. Fidatu apurka-apurka ematen ari zaren urratsetan eta segi aurrera!



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Dena kontrolpean izan nahi duzu beti eta horrek antsietate handia sortarazten dizu. Eskatu laguntza eta banatu bizitzako zamak.



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Laster atzerrira bizitzera joateko aukera suertatuko zaizu. Honek lagunduko dizu benetan gura duzuna argi ikusten...



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Espero ez zenituen gauza polit asko gertatu zaizkizu azken boladan. Orain horiek integratzeko aldia da, hartu patxadaz.



Eguzki-lorea

Denok ezagutzen dugu Euskal Herriko hainbat ate, leiho edota beheko su hornitzen eta ornatzen duen lore berezi hori, hain da gurea! Baina oraingoan, **eguzki-lorea**ren inguruko zenbait uste –ustelak barne–, historia, istorio eta misterio kontatuko ditugu, are gehiago maita dezagun izaki harrigarri hori.

1) Eguzki-lorea ez da lorea. Lore baten itxura badu ere, erdiko diskoa **infloreszentzia** dugu, hau da, hainbat lorez osatutako multzoa; eta ingurukoak ez dira petaloak, **braktea** izeneko hostoak baino.

2) Hazteko presarik ez duen beti gaztea. Eguzki-loreak urte bi behar ditu erabat hazteko, baina gero ez da sekula zimeltzen.

3) Ahizpa lepo bakoa, ahizpa lepoluzea eta Amerikako lehengusina dantzazalea. Bi eguzki-lore mota daude: eguzki-lore luzea (*Carlina acaulis*) eta eguzki-lore laburra (*Carlina acanthifolia*). Baina biak dira baten aldaerak. **Ekilorea** ere makrofamilia berekoa da, **asterazeoena**, baina beste espezie batekoa (*Helianthus annuus*). Honek Amerikan du jatorria, hiru metroko zurtoina izan dezake, eta landare burua biratu egiten da eguzkiari begira paratzeko.

4) Izenak eta izanak. Bestelako izenak ere baditu eguzki-lore gureak: **astalar**, **basalahar** eta **kardalore**, besteak beste. Datu bitxia: Gipuzkoako Tolosaldeko Goiatz herrian **ilargi-belarra** deitzen zioten, Barandiaranek dioskunez. Izen zientifikoari dagokionez, *Carlina* terminoa Karlos Handiaren izenetik ei dator. Uste miraritsu honen arabera, enperadorea Pirinioen inguruan zebilen batean, aingeru bat agertu eta eguzki-lorea birtuteak azaldu omen zizkion, **izurriak** jota zituen soldaduak sendatzeko. Zenbait botanikaririk, bestetik, *Carlina* berba *cardunculos* terminotik (karduaren txikigarria) datorrela uste dute.

5) Sendabelar ahalguztiduna. Eguzki-belarraren hostoak jangarriak dira, eta sustriak gaitz askorentzako erremedio bide dira: urdailerako, hesteetarako, griperako, izurrirako, ekzemetarako, aknerako...

6) Nongoa? Joan eta bertakoa. Eguzki-lorea Europa ia osoan topa genezake 1.000-2.000 metroko altueran. Euskal Herrian ez ezik, Katalunian, Aragoian, Kantabrian, Errioxan eta Burgosen topatuko dugu.

7) Etxeko barometroa. Infloreszentzia itxi egiten da eguraldi txarra dakarrenean.

8) Mitoak eta kondairak. Eguzki-lorea eguzki formak izpiritu txarretatik babesten gaitu; hortik etxeko sarrera-irteeretan ipintzeko ohitura. Donibane egunean omen du indar gehien lore magiko honek. Kondaira batek dio eguzki-lorea Amalurrek sortu zuela gizakion eskariz, eguzki amandrea lo zegoenetan guri babesa emateko.

9) Eguzki-lorea geroa. Galzorian egon zenez, gaur egun babestu dute eta galarazita dago menditik hartzea. Zorionez, baina, enpresa batzuk eguzki-lorea hazten eta saltzen hasi dira.



Berba azoka

Eguzki-lore

Landare handia, hosto-zorrotza, buruan eguzkiaren itxura duena. Mota bi daude: eguzki-lore luzea (*Carlina acaulis*) eta eguzki-lore laburra (*Carlina acanthifolia*)

Infloreszentzia

Landareetan multzoak eratuz biltzen diren loreak.

Braktea

Hainbat landareetan, lorearen oinean sortzen den hostoa, landarearen gainerako hostoetatik formaz eta kolorez bereizten dena eta lorea babesten duena.

Ekilore

Asterazeoen familiako landare belarkara, eguzkia dagoen aldera biratzen den lore hori handi bat ematen duena (*Helianthus annuus*); landare horren lorea.

Asterazeo

Landare angiospermoez mintzatuz, loreak infloreszentzietan elkarturik dituen (*Asteraceae*); (pl.) landare horiek osatzen duten familia. Konposatu ere esaten zaie.

Astalar

Karduaren antzeko landare belarkara, zurtoin arantzatsua eta lore more-arrosak dituen (*Dipsacus fullonum*). Eguzki-loreari deitzeko ere erabiltzen da.

Basalahar

Eguzki-loreari ere deitzen zaio.

Kardalore

Karduaren lorea. Eguzki-loreari ere deitzen zaio.

Ilargi-belar

Eguzki-loreari ere deitzen zaio.

Izurri

Lurralde eta denbora berean biztanleen zati handi bati erasotzen dion eritasun kutsakorra.

Antzarrak Kakarraldo Rugby Taldea

«Taldeaz gain, emakume-sare bat ere sortu dugu»

Antzarrak Rugby Taldearen ibilbidea laburra bezain meteorikoa izan da. Martxoan, Espainiako 3. Mater Series txapelketa irabazi zuten, eta, bai zelaian zein kanpoan ere, oso batuta dagoen taldea sortu dute.

ANDER ZARRAGA ►

Kakarraldon aritzen diren hainbat umeen amek hasi zuten Antzarrak taldea pandemiaren aurretik, beraien seme-alabak entrenatzen zuten bitartean praktikatzen hasi zirenean. «Hasieran, umeak batera hasi ginen, Anartz gure entrenatzaileagaz», gogoratu du Karmele Atxaerandio jokalaria. Astiro-astiro eta lasai hasi ziren, askok ez zekitelako errugbian jokatzeko ere: «Hutsetik hasi ginen, zortzi urteko umeei egiten zaien entrenamenduekin: psikomotrizitatea lantzen, baloia apur bat mugitzen eta arauak ezagutzen».

Gerora, jokari gehiago gehitzen hasi zitzaizkien, eta, Ana Ormaza jokalaria azaldu duenez, beteranoak ere hasi ziren beraiekaz entrenatzen: «Entzun genuen 35 urtetik gorako emakumeen errugbi talde bat ari zirela sortzen, eta bost edo sei beterano ere gehitu ginen proiektura».

DEBUTA. Pandemiaren etenaldiaren ostean, 2020-2021 ikasturtean, taldea indarragaz bueltatu zen, eta hasieran zituzten 10 jokalarietatik gero eta gehiago gehitu zitzaizkien, gaur egungo 30 jokalaria izan arte. Taldearen debuta 2023ko urtarrilean izan zen, Mungiako neskek San Antontxuko torneoan jokatzera gonbidatu zituztenean. «Galdu egin genuen, baina hor erabaki genuen lehiatu nahi genuela eta, horretarako, ondo jolasten eta plakatzen ikastea beharrezkoa zela».

Emakume beteranoen partidetan arauak ezberdinak dira; adibidez, melek ez dira lehiatzen, zelai erdian jokatzeko dute, 10 jokari ditu talde bakoitzak,



Taldea Plentziakoa izan arren, inguruko hainbat udalerritako jokalaria daude bertan.

«Errugbiak duen beste balioetako bat da inklusiboa dela; berdin dio gure gorputzak normatiboak ez izatea, denok balio dugu honetarako, eta gure gorputzez harro sentitu gaitzake»

KARMELE ATXAERANDIO
ANTZARRAK TALDEKO JOKALARIA

«Konfiantza zelaian zein WhatsApp taldean daukagu, badakigulako atzean norbait egongo dela erortzen bagara; hortik dator taldearen izena ere, antzaren moduan 'V' forman hegan egiten dutelako elkarri laguntzeko»

AMAIA ARBEOLA
ANTZARRAK TALDEKO JOKALARIA

plakaketakaz edo plakaketa barik jokatu daiteke, eta 10 minutuko bi denbora dituzte partidek. «Txapelketetara joango ginela erabaki genuenean, denok bat etorri ginen plakaketakaz egingo genuela, gainontzeko kategorietan bezala», azpimarratu du Ormazak. Jokalariak une gogoangarria bat bezala deskribatu dute momentu hura, eta 56 urte dituen taldekide nagusienak esandakoa gogoan dute: «Nik gauza asko bizi izan ditut eta ez nago ezetz esateko, gauzak topera egingo ditut, ez daukat galtzeko denborarik».

Hortik aurrera, besteak beste, Bilbon eta Gijonen (Asturias) jokaturako txapelketetan parte hartu zuten, eta urte batean, partidak galtzetik lehenak izatera pasatu ziren; izan ere, garaipen handia martxoan lortu zuten, Espainiako 3. Mater Series txapelketa irabazi zutenean Bartzelonan. «Partidua amaitu eta jokalaria pozez saltoka hasi zirenean, ezin nuen sinetsi ere egin», gogoratu du Ormazak.

«Bilakaera hori oso polita izan da, bidean pertsonalki ere asko kohesionatu garelako; hainbat ekintza egin ditugu bidaietarako dirua ateratzeko, eta taldea asko batu da», goraiatu du Naia Pujana jokalaria. Amaia Arbeloa ere bat dator beragaz, eta azpimarratu du talde bat baino askoz gehiago direla orain: «Taldea bat izateaz gain, emakume-sare bat ere sortu dugu, elkarri edozein gauzatarako elkar laguntzeko prest gaude». Atxaerandioek aldarrikatu du «feminismo ariketa» bat dela

Gadea Moja Skatera

«Hor egotea oso zaila da, baina, lortzen badut, itzela izango da»

ANDER ZARRAGA ▶

La Kantera skate-pistatik Pariseko Joko Olinpikoetara. Gadea Moja bere bidea ari da egiten munduko skate elitean, eta udan Parisen bere lekua izateko ari da lehiatzen, gogor. 14 urteko algortarra Basque Teameko bekaduna da, Espainiako eta Euskadiko selekzioetan aritu da, eta Opera edo Converse bezalako marken babesa ere jasotzen du.

Nola hasi zinen skatean? Arrigunaga ondoan bizi naiz, txikitatik aitarekin joaten nintzen La Kantera skate-parkera, eta beti egoten nintzen skate batekin beso azpian edo gauzak egiten saiatzen. Entrenatzen sei edo zazpi urterekin hasi nintzen, eta 10 urterekin joan nintzen Espainiako lehen txapelketara. Hor zazpigarren geratu nintzen, eta urte berean egin genuen beste batean hirugarren postua lortu nuen. Hor ikusi zuten kapazitate handia neukala.

Normalean, non entrenatzen duzu? Leku askotan ibiltzen naiz, skate-pista mota guztiak probatzen saiatzen naizelako. Batzuetan, Berangoko UK skate-parkean aritzen naiz, Nico Fuertesek nahi dudanean joaten uzten didalako, baina Sopelan edo Portugaleten ere aritzen naiz. La Kanterara ere joatea gustatzen zait dagoen giroagatik.

Nola uztartzen dituzu ikasketak txapelketakaz eta entrenamenduakaz? Ikastolako ordu batzuk hartzen ditut entrenatzeko astero, beraz, nahiko ondo konpontzen naiz. Horrez gain, lagunei ere apunteak eta eskatzen dizkiet, baina San Nikolas Ikastolakoek ere erraztasunak jartzen dizkidate.

Zuk Park modalitatea egiten duzu, zertan datza? Street eta Park edo Bowl modalitateak



Besteak beste, UK Skate-parkean aritzen da Gadea Moja. HO DEI TORRES

Basque Teameko bekaduna

«Beraiei esker skate-park onenetan entrenatu dezaket, medikuarenera joan naiteke lesionatzen banaiz, kiroleko psikologoa ere daukate eta bidaiatzeko dirua ere ematen didate»

Gakoak

«Skater on bat izateko konpletoa izan behar zara: pistan arin joan, estilo ezberdinetako trukoak egin, originala izan eta hegan egiten jakin»

daude. Batean, kalean dauden barandetan eta halakoetan trukoak egiten dira, eta bestea bowl moduko pista handi batean egiten da. Ni txikitatik hasi nintzen Park egiten, eta horretan aritzen naiz, hobeto ematen zaidalako. Txapelketak 45 segundo inguruko hiru errondak izaten dira, baina formatu ezberdinak erabiltzen dituzte, eta denbora horretan zure trukorik onenak egiten saiatu behar zara.

Maiatzean eta ekainean Shanghaira eta Budapestera joango zara Joko Olinpikoetako kanporaketetarako, nola ikusten duzu zure burua? Bai, aurre-olinpiadetara joango naiz. Fase honetan 44 skater gaude eta 25 izango dira Joko Olinpikoetara sailkatuko direnak. Ni 23. postuan nago, gainera, herrialde bakoitzeko hiru pasatzen dira, beraz, uste dut aukerak izan ditzakedala.

Nola sentitzen duzu Jokoetara joateko aukera hori? Niretzat amets bat bezalakoa da, hor egotea oso zaila da, baina, lortzen badut,

Zer da zuretzako Kanpomartxo?



AINTZANE BILBAO ZALBIDEA
ERANDIO

Niretzako, Kanpomartxo da lagunekin eta familiarekin disfrutatzeko egun bat gure herrian, betiere euskaraz. Horixe da, bai.



JON GARCIA
ERANDIO

Esango nuke Erandioko jai nagusienetariko bat dela, eta, batez ere, oso erabilgarria dena euskara sustatzeko eta euskara bultzatzeko. Euskara erabiltzeko egunik aproposena da.



NAIARA GANA
ALTZAGA (ERANDIO)

Naturan eta naturarekin eguna pasatzeko eta, aldi berean, euskaraz mintzatzeko aukera aproposa eskaintzen du Kanpomartxok. Izan ere, jaialdi honetan, orokorrean, giro euskalduna izaten da.



BEÑAT PADIN
ALTZAGA (ERANDIO)

Auzoz auzo, Berbotsek urtero antolatzen duen jai bat da, euskara sustatzeko asmoz. Urteroko hitzordua da kuadrillan, elkarrekin batzeko egun garrantzitsua da, gehienok etortzen baikara urtero-urtero elkarrekin egoteko.



LANDER ESPIGA
MUNGIA

Aurtengo hau izan da nire bigarren Kanpomartxo. Niretzako, egun hau da jaian ibiltzeko egun bat, baina, batez ere, euskaraz aritzeko egun bat. Nahiko giro ona izaten du beste jai batzuek alderatuta, eta asko gustatzen zait. Datorren urtean ere errepikatuko dut.



KRISTINA JUEZ
ERANDIO

Kanpomartxora urtero etortzen naiz kuadrillarekin. Niretzat jai hau da lekua euskara sustatzeko eta Erandioko beste auzoak ezagutzeko eta inguruko jendearekin eguna pasatzeko. Gainera, eguna polita ateratzen bada, aurtengoa bezala, primeran pasatzeko aukera ezin hobea eskaintzen du.



IGOR LOPEZ
LEIOA

Orain, Erandion bizi naiz, baina orain arte ez neban Kanpomartxo ezagutzen. Hala ere, orain seme-alabak ditut hemen dantzan, eta horregatik etortzen gara, horiek ikustera eta, aldi berean, euskaraz bizi, gozatu eta euskara bultzatzera.



JOSU ZARATE
ERANDIO

Kanpomartxo da herriko eta inguruko euskaldunak batzeko egun bat. Elkar ezagutzeko hitzordua da, izan ere, askotan ez dugu elkar ezagutzen, tamalez. Hala, elkarrekin gozatzeko, gauza sinpleak egiten, gustukoak ditugunak eta elkarrekin disfrutatuz.



Boubacar Diouf

Nongoa

Dakar, Senegal.

Adina

53 urte.

Zertan dabil


Lanean.

Noiz heldu zinen?

2015ko urtarrilean.

Noiz arte bertan?

Auskalo.



Lurraldea

Senegal.

Azalera

196.722 km².

Hiriburua

Dakar.

Biztanleria

16.876.720 (2021).

Hizkuntzak

Hizkuntza ofiziala frantsesa da, baina etnia bakoitzak bere hizkuntza du, eta wolofera da indar gehien duena.

Moneta

CFA frankoa.

«Uste dut Senegalen gauzak aldatzear daudela»

ANDER ZARRAGA ▶

Boubacar Diouf senegaldarrak 2015tik darama gurean bizitzen, eta ikasketak orain arte utzita izan dituen arren, une honetan euskarazko B2 maila ikasten ari da euskaltegian. Orain, primeran egiten du, baina gogoratu du hasieran, Galdakaon bizi zenean, euskara entzun zuen lehen aldian, turistak zirela pentsatu zuela. Gerora, konturatu zen lehendik ere Senegalen entzuna zeukala euskara, han arrantzan dauden ontzi askok izen euskaldunak dituztelako; «ikasten hasi nintzenean konturatu nintzen horretaz».

Dioufek 2014an utzi zuen Senegal, hainbat urtez arrantzontzietan sukaldari gisa lanean aritu eta gero. «2002an, Espainiako Estatuak eta Mauritaniak hitzarmena bertan behera utzi zutenean, guk Mauritaniako uretan arrantzatzen genuenez, flota guztia bueltatu egin zen; lan barik geratu nintzen eta erabaki nuen hona etortzea».

Azaldu duenez, gaur egun Senegalen egoera «ez da hain ona», eta han familia

izan arren, ez du uste bueltatuko denik. Hala ere, apirilean hauteskundeak izan zirela eta ezkerreko presidente berria hautatu dutela gogoan du. Gauzak aldatuko direlakoan dago bera: «Gaztea da, ez dauka enpresa edo Frantzia bezalako herrialderik bere atzean, eta gauzak aldatuko dituela esan du. Itxaropentsu gaude».

Txikitan, Saloum Deltako irletan bizi zen bere gurasoakaz, baina bederatzi urtegar Dakar hiriburura mugitu zen. «Nire gurasoak hango irletako arrantzaleak dira, eta txikitan oporretan hara joaten ginen beti». Kontatu duenez, orduko oroitzapen onak gordetzen ditu: «Oso leku polita da, eta irlen artean kanoan bakarrik mugitu zaitezke, ez dagoelako erreperiderik». Dioenez, gurean afrikar jatorria duten arrantzale gehienak bertakoak dira baita ere.

Euskara ikasteaz eta berbalagun taldeetan aritzeaz gain, Diouf Mbolo Moyo Doole manteroan eskubideak defendatzen dituen Bizkaiko plataformako kidea da eta SOS Arrazakeria taldeagaz ere aritzen da lanean,


Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



AURREKO
SOLUZIOAK



Konta!

Zertarako erabiltzen dituzu eskuko hatzak?
Gitarra jotzeko? Muki lehorrak ateratzeko? Arkatzei eusteko?
Bada, batzuek ipuintxoak asmatzeko ere baliatzen dituzte.
Hatz bakoitzean pertsonaia bana marraztu, eta istorioak kontatzen hasten dira. Hemen azpian esku baten ertza dago. Hiru pertsonaia ditu: Txirrita bertsolaria, Altxoko Handia eta Margarita Nafarroako azken-aurreko erregina. Bostekoa osatzeko beste bi pertsonaia falta dira. Egin itzazu zure gustukoak. Ondo margotu.

Pertsonaiez gainera, marraztu eskumuturreko bat, eraztun polit bat eta ia esku osoa beteko duen tatuaje bat.



Hamahiru!

Hauek bai zortea! Seina beso, aizue! Eta den-dena eskura, ezta? Aurkitu itzazu bi Shiva hauen artean dauden 13 aldeak.



Handienetik txikienera

Ordenatu eskuok handienetik txikienera. Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienari 9.



Zomorrotxo labirintoan

Hiru xomorrotxo hauetatik bat labirintotik aterako da, beste bat etxera iritsiko da eta hirugarrena harrapatuta geldituko da labirintoan. Ea identifikatzen dituzun.

Yogurinha Borova Aktorea, show womana eta kabaretaria

«Trabestia, dislexikoa eta autonomoa izatea erokeria bat da»

TESTUA: IKER RINCON MORENO
ARGAZKIA: YOGURINHA BOROVA ▶

Defini ezazu zeure burua berba bitan. Sortzailea eta ameslaria.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera? Lars von Trierrek 2000an zuzendutako *Dancer in the Dark*, Björk-en paperean.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat? Txikitik, larunbatetan, nire eskola itxita zegoela baimenik gabe barrura sartzen nintzen, eta saskibaloi-zelaian ABBAren *The winner takes it all* abestia dantzatzeko nuen nire lau gurpileko patinekin eta discman-arekin.

Badaukazu ohitura txarren bat? Bai, opil industrialak jatea.

Zein da zure ametsetako bat? Japoniara joatea.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera? Nire «buruzaletasuna» eramango nuke.

Gorrote duzun topikorik? Hegoaldeko jendea alaiagoa dela eta hobeto bizi dela.

Zer barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian? Emakumeek mundua gidatzen dutela.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena? Trabestia, dislexikoa eta autonomoa izatea, berez, erokeria bat da.

Zertan ez zenuke jardun gura? Politikan, ez nuke politikari izan nahi.

Kontzertuetan gertatutako bitxikeriaren bat? Orozkon (Bizkaia) kontzertu bat hasterakoan, «Kaixo, Ana Mena naiz» esan, eta musika eta nire abestiak jartzerakoan Bluetooth-aren bidez, agertokiaren atzeko partean, herri txiki horretako gazteek nire abestiak kendu zituzten eta Ana Menarenak jarri, kar kar kar!

Kontzertuak emateko lekurik onena? Orozko!

Eta non gura zenuke kontzertu bat eman? AEBetako Idahon, diasporako jaialdietan. Joatear nengoen, baina pandemia heldu zen. Hango euskaldun askok Trump bozkatzen dute, edo eskuinekoak dira... Haiek ere jakin behar dute Euskal Herrian orain trabestiotik euskaldunak izan gaitzezkeela, eta ezkertiarrak! ◀



Laburrean. Las Fellini taldearen baitan 1994an Bilbon sortutako pertsonaia da Yogurinha Borova, eta Eduardo Gaviña Marañonek (Laudio, 1969) gorpuzten du. Hamar urte eta gero, taldea utzi eta bakarlari aritu da. LGTBIQ+ Kolektiboaren aniztasunaren errespetuaren inguruan sentsibilizatzeaz gain, emakumeen arazoez, oraindino indarrean dagoen matxismoaz eta patriarkatuaz kontzientziatzera zuzendutako hainbat egitasmo bideratu ditu, antzerki, musika eta ikus-entzunezkoen bitartez. Azkenaldian, gainera, oso interesatuta dago haurtzaroen balore horiek guztiak zabaltzen, abestien bidez gai guzti horiek jorratzen. Ikuskizunak umeentzat prestatzen dabil, eta baita eskoletan eta institutuetan mezu horiek hedatzen ere.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Akaleiaren kontzertua

Oihana Rodriguezek bere lehen diskoa atera du: *Ondoloin*. Zuzenean entzun gura duzu? Ez galdu aukera eta irabazi sarrera bat Getxoko Muxikebarri Antzokirako, maiatzaren 31n!



Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 26a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zozketa

Maitasunak ikuskizuna

Maitasun inozenteenetik pasionalenetara doan ibilbidea osatuko du Adriana Bilbaok ekainaren 22an, Getxoko Muxikebarri Antzokian. Zuk ere dantzatu gura duzu? Bada, eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 26a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Errekan behera liburua

Ibaizabalen eskutik, *Errekan behera* liburu ederra eskuratu dezakezu; irakurgai aparta 7 urtetik aurreragoko umeentzako. Ez galdu aukera eta har ezazu parte gure zozketan!

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 26a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.




Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.





txombo!

ibilaldia 2024
Getxo

maiatzak 26